SM-G361F

# Erabiltzailearen eskuliburua

Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua

www.samsung.com

# Edukia


## Hasi aurretik, irakurri informazio hau

## Hasteko

6 Kaxaren edukia
7 Gailuaren diseinua
9 SIM edo USIM txartela eta bateria sartzea
14 Memoria-txartela erabiltzea
16 Gailua piztea eta itzaltzea
16 Pantaila blokeatzea eta desblokeatzea

## Oinarrizko kontzeptuak

17 Ukipen-pantaila erabiltzea
20 Pantaila nagusiaren diseinua
24 Jakinarazpen-panela
26 Aplikazioak irekitzea
26 Aplikazioak instalatzea edo desinstalatzea
28 Testua idaztea
30 Nola egin pantaila-irudi bat
30 Nire fitxategiak
31 Energia aurrezteko funtzioa

## Sare-konektagarritasuna

32 Datu mugikorrak
32 WiFi-a
33 USB modema/Bluetooth-a eta Konexio partekatua

## Pertsonalizatzea

35 Pantaila nagusia eta aplikazioak konfiguratzea
37 Pantaila-atzealdeak eta melodiak ezartzea
38 Pantaila desblokeatzeko modua aldatzea
38 Kontuak konfiguratzea

## Telefonoa

39 Deitzea
40 Deiak jasotzea
40 Hitz egiten ari zarela dituzun aukerak

## Kontaktuak

42 Kontaktuak gehitzea
42 Kontaktuak inportatzea eta esportatzea
43 Kontaktuak bilatzea

## Mezuak eta posta elektronikoa

44 Mezuak
45 Posta elektronikoa

## Kamera

47 Oinarrizko argazki-ateratzea
48 Argazkiak ateratzeko moduak
50 Kameraren doikuntzak

## Galeria

52 Gailuan edukia ikustea

## Aplikazio eta funtzio erabilgarriak

53 Egutegia
54 Internet
55 Bideoa
56 Erlojua
57 Kalkulagailua
58 Oharra
58 Irratia
60 Ahots-grabagailua
61 Google apps

## Beste gailu batzuetara konektatzea

63 Bluetootha
65 Wi-Fi Direct
67 NFC
69 Mugikor bidez inprimatzea

## Gailuaren eta datuen administratzailea

70 Beste gailu batetik datuak transferitzea
71 Gailua datuak transferitzeko disko erauzgarri gisa erabiltzea
72 Gailua eguneratzea
73 Segurtasun-kopiak egitea edo datuak berrezartzea
73 Datuak berrezartzea:

## Doikuntzak

74 Doikuntzei buruz
74 Konexioak
78 Gailua
80 Pertsonala
82 Sistema

## Arazoak konpontzea

# Hasi aurretik irakurri informazio hau

Gailua erabiltzen hasi aurretik, irakurri eskuliburu hau, erabilera zuzena eta segurua bermatzeko.

- Deskribapenak gailuaren aurrez zehaztutako doikuntzei buruzkoak dira.
- Baliteke eskuliburu honetako eduki batzuk eta gailuarenak bat ez etortzea, zerbitzu-hornitzailearen edo gailuaren softwarearen arabera.
- CPUaren eta RAM memoriaren erabilera handia eskatzen duten edukiek (kalitate handiko edukia) gailuaren errendimendu orokorrari eragiten diote. Baliteke edukiari lotutako aplikazioek behar bezala ez funtzionatzea, gailuaren zehaztapenen eta erabiltzen den inguruaren arabera.
- Samsungek ez du bere gain hartzen bera ez den hornitzaile baten aplikazioek eragindako errendimendu-arazoen erantzukizunik.
- Samsungek ez du bere gain hartzen erregistro-doikuntzak editatzeagatik edo sistema eragilearen softwarea aldatzeagatik sortzen diren errendimendu-arazoen erantzukizunik. Sistema eragilea pertsonalizatzen saiatuz gero, baliteke gailuak edo aplikazioek ondo ez funtzionatzea.
- Softwareak, soinu-iturriek, pantaila-atzealdeek, irudiek eta gailuarekin batera datozen gainerako multimedia-edukiek erabilera-lizentzia mugatua dute. Material horiek helburu komertzialekin edo beste helburu batzuekin erabiltzea egile-eskubideen legeak urratzea da. Erabiltzaileak guztiz erantzule dira multimedia-baliabideak legez kanpo erabiltzen badituzte.
- Gerta liteke gastu gehigarriak izatea datu-zerbitzu hauek erabiltzeagatik, besteak beste: mezuak, kargatzea eta deskargatzea, sinkronizazio automatikoa edo kokapen-zerbitzuak. Bolumen handiko datu-transferentzietarako WiFi funtzioa erabiltzea gomendatzen da.
- Gailuarekin datozen aplikazio lehenetsiak eguneratu egin litezke, eta baliteke bateragarri izateari uztea, aurrez jakinarazi gabe. Gailuak dakarren aplikazioren batekin zalantzaren bat badaukazu, jarri harremanetan Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin. Erabiltzaileak instalatutako aplikazioen kasuan, berriz, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.
- Gailuaren sistema eragilea aldatzen baduzu edo iturri ez-ofizialetako softwarea instalatzen baduzu, baliteke gailuak ondo ez funtzionatzea eta datuak kaltetzea edo galtzea. Hori eginez gero, Samsungekiko lizentzia-hitzarmena urratzen da, eta bermea ezeztatuta geratzen da.

## Jakinarazpen-ikonoak

**Oharra:** Zu zeu edo beste pertsona batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.

**Kontuz:** zure gailua edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.

**Oharra:** erabilera-gomendioak edo informazio gehigarria.

# Hasteko

## Kaxaren edukia

Produktuaren kaxan, hauek aurkituko dituzu:

- Gailua
- Bateria
- Bizkor hasteko gida

- Gailuarekin batera datozen elementuak eta eskuragarri dauden osagarriak desberdinak izan daitezke lekuaren edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Gailuarekin batera emandako elementuak gailurako berariaz diseinatuta daude, eta baliteke beste gailu batzuekin bateragarriak ez izatea.
- Itxura eta zehaztapenak aldatu egin litezke aurretik jakinarazi gabe.
- Hainbat osagarri eros ditzakezu Samsungen tokiko hornitzailearen bidez. Erosi aurretik, ziurtatu gailuarekin bateragarriak direla.
- Samsungek onartutako osagarriak soilik erabili. Baliteke onartu gabeko osagarriak erabiltzeak bermeak estaltzen ez dituen errendimendu-arazoak eta funtzionamendu-erroreak eragitea.
- Osagarrien eskuragarritasuna aldatu egin liteke, enpresa fabrikatzaileen arabera. Eskuragarri dauden osagarriei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Samsungen webgunea.

# Gailuaren diseinua






- Ez estali antena eskuekin edo beste objekturen batekin. Baliteke konektagarritasun-arazoak eragitea edo bateria agortzea.
- Samsungek onartutako pantaila-babesle bat erabiltzea gomendatzen da. Baliteke onartu gabeko pantaila-babesleek funtzionamendu-erroreak eragitea sentsoreetan.
- Ukipen-pantailak ez du urik ukitu behar. Litekeena da ukipen-pantailak ongi ez funtziona-tzea ingurune hezeetan edo bustitzen denean.

# Botoiak eta teklak

| Botoia | | Funtzioa |
|---|---|---|
|  | **Pizteko botoia** | • Luze sakatu telefonoa pizteko eta itzaltzeko.<br>• Sakatu, pantaila pizteko edo blokeatzeko. |
|  | **Azkena erabilitako aplikazioak** | • Sakatu, azkena erabilitako aplikazioen zerrenda irekitzeko. |
|  | **Hasierako botoia** | • Sakatu, pantaila blokeatuta dagoela, pizteko.<br>• Sakatu pantaila nagusira itzultzeko.<br>• Luze sakatu **Google** abiarazteko. |
|  | **Atzera botoia** | • Sakatu, aurreko pantailara itzultzeko. |
|  | **Bolumen-botoia** | • Sakatu gailuaren bolumena doitzeko. |

# SIM edo USIM txartela eta bateria erabiltzea

## SIM edo USIM txartela eta bateria sartzea

Sartu telefonia mugikorreko zerbitzu-hornitzaileak emandako SIM edo USIM txartela eta gailuak dakarren bateria.

- Gailuak microSIM txartelak soilik onartzen ditu.
- Baliteke LTE zerbitzuetako batzuk eskuragarri ez egotea zerbitzu-hornitzailearen arabera. Zerbitzuaren erabilgarritasunari buruzko xehetasun gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

1 Kendu atzeko tapa



Kontuz kendu atzeko estalkia, azazkaletan minik ez hartzeko.

Ez tolestu eta ez biratu gehiegi atzeko estalkia. Kaltetu egin liteke.

2 Sartu SIM edo USIM txartela, txipa behera begira duela.



- Ez sartu memoria-txartelik SIM txartelaren artekan. Memoria-txartel bat SIM txartelaren zirrikituan katigatuta geratzen bada, Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzura eraman beharko duzu gailua, memoria-txartela atera dezaten.
- Kontuz: ez galdu SIM edo USIM txartela, eta ez utzi beste inori erabiltzen. Samsungek ez du bere gain hartzen txartelak galtzearen edo lapurtzearen ondorioz sortutako kalte eta eragozpenen ardurarik.

3 Sartu bateria; txipak ondo lerrokatuta gelditu behar du gailuko kontaktuekin.



4 Jarri berriro atzeko estalkia.



- Ziurtatu atzeko estalkia itxita dagoela.
- Samsungek gailurako onartutako atzealdeko estalkiak eta osagarriak soilik erabili.

## SIM edo USIM txartela eta bateria kentzea

1 Kendu atzeko tapa

2 Kendu bateria




3 Egin bultza SIM edo USIM txartelari hatzarekin, eta, gero, atera.



## Bateria kargatzea

Erabili kargagailua bateria kargatzeko, gailua lehen aldiz erabili aurretik. Ordenagailu batean ere kargatu dezakezu, USB kable baten bitartez.

Samsungek onartzen dituen kargagailuak, bateriak eta kableak soilik erabili. Onartu gabeko kargagailu edo kableek bateria leherrarazi edo gailua kaltetu lezakete.

- Bateria-maila txikia bada, bateriaren ikonoa hutsik egongo da.
- Bateria batere kargarik gabe badago, ezingo duzu gailua piztu kargagailua konektatu eta berehala. Utzi bateria deskargatua minutu batzuez kargatzen, gailua berriro piztu aurretik.
- Aplikazio bat baino gehiago erabiltzen badituzu aldi berean edo sareko aplikazioak edo beste gailu batekin konektatu beharreko aplikazioak erabiltzen badituzu, bateria azkar agortuko da. Saretik ez deskonektatzeko edo datu-transferentzia egin bitartean energiarik ez galtzeko, bateria osorik kargatu ondoren erabili beti aplikazio horiek.

1 Konektatu kargagailuaren mutur txikia gailuaren funtzio ugariko larakoari, eta konektatu mutur handia elektrizitate-hargune bati.



Kargagailua gaizki konektatzen baduzu, baliteke gailuari kalte larriak eragitea. Okerreko erabilerak eragindako kalteak ez dira bermean sartzen.

- Gailua erabil dezakezu kargatzen ari dela, baina baliteke guztiz kargatzeko denbora gehiago behar izatea.
- Gailuak, kargatzen ari dela, elikadura ezegonkorra jasotzen badu, gerta liteke ukipen-pantailak ez funtzionatzea. Hori gertatzen bada, deskonektatu kargagailua gailutik.
- Kargatzen ari den bitartean, gerta liteke gailua berotzea. Hori normala da, eta ez du eraginik telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan. Bateria ohikoa baino gehiago berotzen bada, baliteke kargagailuak kargatzeari uztea.
- Gailua behar bezala kargatzen ez bada, eraman ezazu kargagailuarekin batera Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzura.

2 Guztiz kargatu ondoren, deskonektatu gailua kargagailutik. Lehenengo, deskonektatu kargagailua gailutik, eta, gero, elektrizitate-hargunetik.

Ez kendu bateria aurrez kargagailua kendu gabe. Baliteke horrek gailua kaltetzea.

Kargagailuak ez du pizteko eta itzaltzeko etengailurik, eta, beraz, ez du elektrizitate-hornidura eteteko aukerarik; ondorioz, erabiltzaileak kendu behar du kargagailua saretik. Gainera, konektatuta dagoenean, entxufetik gertu egon behar du. Energia aurrezteko, deskonektatu kargagailua erabiltzen ari ez zarenean.

## Bateria-kontsumoa murriztea

Bateria aurrezten laguntzen duten zenbait funtzio ditu gailuak. Aukera horiek pertsonalizatu eta bigarren mailako funtzioak desaktibatuz gero, denbora gehiago iraungo dizu gailuak berriz kargatu aurretik.

- Gailua erabiltzen ari ez bazara, blokeatu ezazu, pizteko tekla sakatuta.
- Itxi behar ez dituzun aplikazioak, ataza-kudeatzailearen bidez.
- Desaktibatu bluetootharen funtzioa.
- Desaktibatu WiFi funtzioa.
- Desaktibatu aplikazioen sinkronizazio automatikoa.
- Murriztu atzealdeko argiztapeneko denbora.
- Murriztu pantailaren distira.

# Memoria-txartela erabiltzea

## Memoria-txartel bat sartzea

Gehienez ere 128 Gb-eko gaitasuna duten memoria-txartelak onartzen ditu gailuak. Fabrikatzailearen eta txartel-motaren arabera, baliteke txartel batzuk gailuarekin bateragarriak ez izatea.

- Baliteke memoria-txartel guztiak ez izatea gailuarekin guztiz bateragarriak. Bateragarria ez den memoria-txartel bat erabiltzen baduzu, baliteke gailua edo memoria-txartela hondatzea, baita txartelean gordetako datuak hondatzea ere.
- Ziurtatu memoria-txartela norabide egokian sartu duzula, gora begira.

- Gailu honetan, FAT eta exFAT fitxategi-sistemak erabil daitezke memoria-txarteletarako. Fitxategi-sistema ezberdin batekin formateatu den txartel bat txertatzen baduzu, berriz formateatzeko eskatuko dizu gailuak.
- Datuak sarri idazten eta ezabatzen arituz gero, memoria-txartelaren bizitza erabilgarria murriztu egiten da.
- Gailuan memoria-txartel bat sartzen duzunean, memoria-txartelaren fitxategi-direktorioa **Nire fitxategiak** → **SD txartela** karpetan agertuko da, barne-memoriaren barruan.

1 Kendu atzeko tapa eta bateria.

2 Sartu memoria-txartela, txipa behera begira duela.



3 Jarri berriro bateria eta atzeko estalkia.

## Memoria-txartela ateratzea

Memoria-txartel bat kendu aurretik, desgaitu, seguru erauzteko. Pantaila nagusian, ukitu → **Ezarpenak** → **Memoria** → **Desmuntatu SD txartela.**

1 Kendu atzeko tapa eta bateria.

2 Atera memoria-txartela.

3 Jarri berriro atzeko estalkia.

Ez kendu memoria-txartela gailua informazioa transferitzen edo informaziora sartzen ari den bitartean. Baliteke datuak galtzea edo kaltetzea, edo memoria-txartela edo gailua bera kaltetzea. Samsungek ez du bere gain hartzen memoria-txartelak gaizki erabili eta kaltetzearen ondorioz sortutako galeren (datu-galerak, adibidez) ardurarik.

## Memoria-txartela formateatzea

Baliteke ordenagailu batean formateatutako memoria-txartel bat ez izatea bateragarria gailuarekin. Formateatu memoria-txartela gailuan.

Pantaila nagusian, sakatu → **Ezarpenak** → **Memoria** → **Muntatu SD txartela** → **Formateatu SD txartela** → **Guztiak ezabatu**.

Memoria-txartela formateatu aurretik, gogoan izan gailuan gordetako datuen segurtasun-kopia egin behar dituzula. Fabrikatzailearen bermeak ez ditu estaltzen erabiltzaileen ekintzek eragindako datu-galerak.

# Gailua piztea eta itzaltzea

Gailua pizteko, luze sakatu pizteko botoia segundo batzuez.

Gailua lehen aldiz piztean, edo fabrikako datuak berrezarri ondoren, jarraitu pantailako argibideei, gailua konfiguratzeko.

Gailua itzaltzeko, luze sakatu pizteko botoia, eta ukitu **Itzalita**.

Haririk gabeko gailuak debekatuta dauden eremuetan (hegazkinetan eta ospitaletan, adibidez) zaudenean, bete langileek egindako ohar eta argibide guztiak.

# Pantaila blokeatzea eta desblokeatzea

Pizteko botoia sakatzen baduzu, pantaila itzali egingo da, eta gailua blokeatu egingo da. Gainera, pantaila itzali eta automatikoki blokeatuko da, gailua denbora-tarte jakin batez erabiltzen ez baduzu.

Pantaila desblokeatzeko, sakatu pizteko botoia edo hasierako botoia, eta lerratu hatza edozein norabidetan pantailaren desblokeatze-eremuan.



Pantaila desblokeatzeko kodea aldatu egin ahal izango duzu. Infomazio gehiago jakiteko, ikus Pantaila desblokeatzeko modua aldatzea.

# Oinarrizko kontzeptuak

## Ukipen-pantaila erabiltzea

- Ukipen-pantailak ez du ukitu behar beste gailu elektrikorik. Deskarga elektrostatikoek ukipen-pantailaren funtzionamenduan eragin dezakete.
- Ukipen-pantailak kalterik izan ez dezan, ez sakatu objektu puntadunekin, eta ez sakatu gehiegi hatzekin.

- Pantailaren ertzetatik hurbil ukituz gero, baliteke gailuak ez ezagutzea, ukipen bidez idazteko eremutik kanpo dagoelako.
- Ukipen-pantaila denbora luzez inaktibo utziz gero, baliteke irudiak gaizki agertzea. Gailua erabili behar ez baduzu, itzali ukipen-pantaila.
- Ukipen-pantaila hatzez erabiltzea gomendatzen da.

### Sakatzea

Aplikazio bat irekitzeko, menuko elementu bat aukeratzeko, pantailako botoi bat sakatzeko edo pantailako teklatuarekin karaktere bat idazteko, sakatu pantaila hatzarekin.



## Luze sakatzea

Sakatu elementu bat edo pantaila 2 segundo baino luzaroago, eskuragarri dauden aukeren zerrenda irekitzeko.



## Mugitzea

Elementu bat mugitzeko, luze sakatu elementua, eta arrastatu nahi duzun lekuraino.



## Bi aldiz sakatzea

Sakatu bi aldiz webgune bat edo irudi bat, zooma handitzeko. Sakatu berriro bi aldiz jatorrizko tamainara itzultzeko.



## Lerratzea

Lerratu pantaila nagusia edo aplikazio-pantaila ezkerrera edo eskuinera, beste panel bat ikusteko. Lerratu pantaila gora edo behera webgune batean edo elementu-zerrenda batean mugitzeko; adibidez, kontaktu-zerrendan.



## Atximur egitea

Bereizi bi hatz webgune batean, mapa batean edo irudi batean, zooma handitzeko. Zooma txikitzeko, berriz, elkartu itzazu.



# Pantaila nagusiaren diseinua

## Hasierako pantaila

Gailuaren funtzio guztietara sartzeko abiapuntua da pantaila nagusia. Widgetak, aplikazioetarako lasterbideak eta beste funtzio asko ditu. Widgetak aplikazio txikiak dira, funtzio jakin batzuk martxan jartzen dituztenak, pantaila nagusian informazioa eta sarbideak izateko.

Beste panel batzuk ikusteko, joan ezkerrera edo eskuinera, edo aukeratu adierazle bat pantailaren beheko aldean. Pantaila nagusia pertsonalizatzeko, kontsultatu Pantaila nagusia konfiguratzea.



## Pantaila nagusiaren aukerak

Pantaila nagusian, luze sakatu eremu huts bat, edo egin atximur, eskuragarri dauden aukeretara sartzeko.



## Aplikazioen pantaila

Aplikazio-pantailan, aplikazioetako ikonoak daude; baita azkena instalatutakoenak ere.

Pantaila nagusian, sakatu ▦, aplikazio-pantaila irekitzeko. Beste panel batzuk ikusteko, joan ezkerrera edo eskuinera, edo aukeratu adierazle bat pantailaren beheko aldean. Aplikazio-pantaila pertsonalizatzeko, ikus Aplikazio-pantaila konfiguratzea.



# Jakinarazpen-ikonoak

Jakinarazpen-ikonoak egoera-barran bistaratzen dira, pantailaren goiko aldean. Taula honetan jasotzen dira ikono ohikoenak.

Aplikazio batzuetan, baliteke egoera-barra ez bistaratzea pantailaren goiko aldean. Egoera-barra bistaratzeko, arrastatu pantailaren goiko aldea beherantz.

| Ikonoa | Esanahia |
|---|---|
| | Ez dago seinalerik |
| | Seinalearen intentsitatea |
| | Desplazamendua (roaminga) |
| | GPRS sarea konektatuta |
| | EDGE sarea konektatuta |
| | UMTS sarea konektatuta |
| | HSDPA sarea konektatuta |
| | HSPA+ sarea konektatuta |
| | LTE sarea konektatuta |
| | WiFi-ra konektatuta |
| | Bluetootha aktibatuta |
| | GPSa aktibatuta |
| | Deia martxan |
| | Dei galdua |
| | Testu-mezu edo multimedia-mezu berria |
| | Alarma aktibatuta |
| | Modu isila aktibatuta |
| | Bibrazio modua aktibatuta |
| | Hegazkin-modua aktibatuta |
| | Errore bat gertatu da edo kontuz ibili behar da |
| | Bateriaren karga-maila |

# Jakinarazpen-panela

## Jakinarazpen-panela erabiltzea

Jakinarazpenak jasotzen dituzunean (mezuak edota dei galduak), ikonoak bistaratuko zaizkizu egoera -barran. Ikonoei buruzko informazio gehiago ikusteko, ireki jakinarazpen-panela, eta ikusi xehetasunak.

Jakinarazpen-panela irekitzeko, mugitu behera egoera-barra.

Jakinarazpen-panela ixteko, mugitu barra pantailaren beheko aldetik gora.



Jakinarazpen-panelean, funtzio hauek erabili ahal izango dituzu.



## Quick settings botoiak berrantolatzea

Jakinarazpen-panelean doikuntza azkarreko botoiak berriro antolatzeko, ireki aplikazioen pantaila, eta sakatu **Ezarpenak** → **Pantaila** → **Jakinarazpenen panela**. Luze sakatu elementu bat, eta, ondoren, mugitu kokaleku berri batera.

## Quick settings botoiak erabiltzea

Jakinarazpen-panelean, zenbait funtzio aktiba edo desaktiba ditzakezu. Sakatu aukera hauek, aukera aktibatzeko edo desaktibatzeko. Doikuntza zehatzagoak ikus ditzakezu botoi bat luze sakatuz gero.

- **Wi-Fi:** ikusi WiFi informazio gehiago eskuratzeko.
- **Kokapena:** informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Kokapena.
- **Soinua / Bibrazioa / Isilarazi**: soinu-modu bat aukeratzeko.
- **Pantaila biraketa:** gailua biratzen denean interfazea ere bira dadin / bira ez dadin.

Aplikazio batzuek ez dute ematen pantaila biratzeko aukerarik.

- **Bluetooth:** informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Bluetootha.
- **Datu mugik.:** informazio gehiago behar baduzu, ikusi Datuen erabilera edo Sare mugikorrak.
- **Bat. aurr. ultram.:** informazio gehiago behar baduzu, ikusi Bateria aurrezteko ultramodua
- **Mobile hotspot:** informazio gehiago eskuratzeko, ikus USB modema/Bluetooth-a eta Konexio partekatua.
- **NFC:** informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu NFC.
- **Sinkroniz.:** funtzio hau aktibatuz gero, gailuak automatikoki sinkronizatzen ditu aplikazioak (egutegia eta posta elektronikoa, adibidez).
- **Ez molestatu:** bloke-modua aktibatzeko edo desaktibatzeko. Blokeo-moduan, gailuak blokeatu egingo ditu jakinarazpenak. Zein jakinarazpen blokeatu nahi dituzun aukeratzeko, sakatu **Ezarpenak** → **Soinuak eta jakinarazpenak** → **Ez molestatu**.
- **Hegaldia modua:** informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu Hegazkin modua.

# Aplikazioak irekitzea

Pantaila nagusian edo aplikazio-pantailan, aukeratu aplikazio baten ikonoa, irekitzeko.

Azkena erabili dituzun aplikazioen zerrenda irekitzeko, ukitu ▭, eta aukeratu aplikazio baten ikonoa, hura exekutatzeko.

### Aplikazio bat ixtea

Aplikazio bat ixteko, sakatu ▭ eta arrastatu aplikazioaren ikonoa eskuinera edo ezkerrera. Aktibatuta dauden aplikazio guztiak ixteko, sakatu ≡x.

# Aplikazioak instalatzea edo desinstalatzea

## Galaxy Apps

Erabili aplikazio hau aplikazioak erosteko eta deskargatzeko.

Aplikazio-pantailan, sakatu **GALAXY Apps**.

Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### Aplikazioak instalatzea

Bilatu aplikazioak kategoriaren arabera, edo sakatu **BILATU**, hitz gako bat bilatzeko.

Aukeratu aplikazio bat, hari buruzko informazioa ikusteko. Doako aplikazioak deskargatzeko, sakatu **INSTALATU**. Ordainpeko aplikazioak erosteko eta deskargatzeko, sakatu prezioa.

Automatikoki eguneratzeko doikuntza aldatzeko, sakatu ▼ → **Ezarpenak** → **Eguneratu aplikazioak automatikoki**, eta, ondoren, hautatu aukera bat.

# Play Store

Erabili aplikazio hau aplikazioak erosteko eta deskargatzeko.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Play Store**.

## Aplikazioak instalatzea

Bilatu aplikazioak kategoriaren arabera, edo ukitu , hitz gako bat bilatzeko.

Aukeratu aplikazio bat, hari buruzko informazioa ikusteko. Doako aplikazioak deskargatzeko, sakatu **INSTALATU.** Ordaintzeko aplikazioak erosteko eta deskargatzeko, sakatu prezioa, eta bete pantailako jarraibideak.

Automatikoki eguneratzeko doikuntza aldatzeko, sakatu → **Ezarpenak** → **Eguneratu aplikazioak automatikoki**, eta, ondoren, hautatu aukera bat.

# Aplikazioak administratzea

## Aplikazioak desinstalatzea edo desaktibatzea

Aplikazio-pantailan aplikazio lehenetsiak desaktibatzeko, ireki aplikazio-pantaila, eta sakatu → **Desinstal-/Desgaitu apl.** bistaratuko da desaktibatu ditzakezun aplikazioen gainean. Hautatu aplikazio bat, eta sakatu **ONARTU**.

Aplikazio-pantailan aplikazio lehenetsiak desinstalatzeko, ireki aplikazio-pantaila, eta sakatu → **Deskargatutako aplikazioak** → → **Desinstalatu**. Bestela, aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Administrador de aplicaciones**, aukeratu aplikazio bat, eta, gero, sakatu **DESINSTALAR.**

## Aplikazioa aktibatzea

Aplikazio-pantailan, sakatu → **Erakutsi apl. ezgaituak,** aukeratu aplikazioak, eta, gero, sakatu **Egina**. Bestela, aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Aplikazio kudeatzailea**, joan **EZGAITUTA** aukeraraino, hautatu aplikazio bat, eta, gero, sakatu **GAITU**.

- Ocultar aplicaciones: aplikazioak pantailan soilik ezkutatzeko. Ezkutatutako aplikazioak erabiltzen jarraitu ahal izango duzu.
- Deshabilitar aplicaciones: gailuan desinstalatu ezin diren zenbait aplikazio lehenetsi desaktibatzeko. Desaktibatutako aplikazioak ezingo dituzu erabili.
- Desinstalar aplicaciones: deskargatutako aplikazioak desinstalatzeko.

# Testua idaztea

## Teklatuaren kokapena

Mezuak bidaltzeko, oharrak sortzeko edo beste aukeraren baterako testua idazteko,teklatua bistaratuko da automatikoki.

Testua sartzeko moduak ez du funtzionatzen hizkuntza batzuetan. Testua idazteko, hizkuntza bateragarrietako batera aldatu behar duzu idazteko hizkuntza.




### Idazteko hizkuntza aldatzea

Sakatu → **Aukeratu sarrera hizkuntza**, eta, gero, aukeratu erabili nahi dituzun hizkuntzak. Bi hizkuntza edo gehiago aukeratzen badituzu, idazteko hizkuntza alda dezakezu, zuriune-barra ezkerrera edo eskuinera eramanda.

### Teklatuaren diseinua aldatzea

Sakatu , aukeratu **Sarrera Hizkuntzak** aukeraren azpiko hizkuntzetako bat, eta, gero, hautatu teklatu -diseinu bat, erabiltzeko.

**3x4 teklatuan**, tekla bakoitzak hiru edo lau karaktere ditu. Karaktere bat sartzeko, sakatu tekla behin baino gehiagotan, dagokion karaktereraino iritsi arte.

## Teklatuaren funtzio gehigarriak erabiltzea

Luze sakatu ⚙ zenbait funtzio erabiltzeko. ⚙ ez beste ikonoak bistaratu litezke, erabili duzun azken funtzioaren arabera.

- 🎤: testua ahots bidez idazteko.




- ⚙: teklatuaren doikuntzak aldatzeko.
- ☻: aurpegierak txertatzeko.

## Kopiatzea eta itsastea

1 Luze sakatu testu bat.

2 Mugitu edo , nahi duzun testua aukeratzeko, edo ukitu **Seleccionar todo**, testu osoa aukeratzeko.

3 Sakatu **Kopiatu** edo **Moztu**. Hautatutako testua arbelean gordetzen da automatikoki.

4 Jarri kurtsorea testua txertatu nahi duzun lekuan, eta sakatu → **Itsatsi.**

# Pantaila-irudia hartzea

Egin pantaila-irudi bat gailua erabiltzen ari zarela.

Luze sakatu, aldi berean, hasierako botoia eta pizteko botoia. Hartutako irudiak ikusteko, jo Galería atalera. Pantaila-irudi bat egin ondoren, editatu eta beste pertsona batzuekin parteka dezakezu.

Zenbait aplikazio erabili bitartean ezin da hartu pantaila-irudirik.

# Nire fitxategiak

Erabili aplikazio hau gailuan gordetako fitxategietara sartzeko.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Nire fitxategiak**.



# Energia aurrezteko funtzioa

## Modo Ultrahorro de energía:

Erabili funtzio hau gailuko bateriaren iraupena luzatzeko. Energia asko aurrezteko moduan, gailuak hauek egingo ditu:

- Oinarrizko aplikazioak eta aukeratutakoak soilik egongo dira eskuragarri.
- Pantaila itzaltzen denean, datu mugikorren konexioa desaktibatu egingo da.
- WiFi-a eta bluetootha desaktibatu egingo dira.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Bateria aurrezteko ultramodua,** eta, gero, mugitu Modo Ultrahorro de energía etengailua, aktibatzeko. Bestela, ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu Ultra ahorro, aktibatzeko.

Pantaila nagusiari aplikazio bat gehitzeko, sakatu , eta aukeratu aplikazio bat.

Pantaila nagusiko aplikazio bat ezabatzeko, sakatu → **Ezabatu**, aukeratu aplikazio bat erabiliz, eta, gero, sakatu **Ados**.

Energia asko aurrezteko moduaren doikuntzak aldatzeko, sarearen konektagarritasuna edo soinua, esaterako, sakatu → **Ezarpenak**.

Energia asko aurrezteko modua desaktibatzeko, sakatu → **Ezgaitu Bat. Aurr. ultramodua**.

Gehienezko atseden-denbora zenbatetsiak adierazten du zenbat denbora igaroko den bateria agortu arte gailua erabiltzen ez baduzu. Aldatu egin liteke, gailuaren doikuntzen eta eragiketaren baldintzen arabera.

# Sare-konektagarritasuna

## Datu mugikorrak

Konektatu gailua WiFi sare batera, Internet erabiltzeko edo beste gailu batzuekin multimedia-fitxategiak partekatzeko. Aukera gehiagoren berri jakiteko, kontsultatu Datuen erabilera.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Datuen erabilera**, eta, gero, aukeratu Datos móviles. Bestela, ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu Datos móviles, aktibatzeko.

## WiFi-a

Konektatu gailua WiFi sare batera, Internet erabiltzeko edo beste gailu batzuekin multimedia-fitxategiak partekatzeko. Aukera gehiagoren berri jakiteko, kontsultatu WiFi-a.

Erabili behar ez baduzu, desaktibatu WiFi funtzioa, bateria aurrezteko.

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Wi-Fi**, eta, gero, sakatu **Wi-Fi** etengailua, aktibatzeko.

2 Aukeratu sare bat WiFi sareen zerrendan. Pasahitza eskatzen duten sareek giltzarrapo-formako pasahitz bat izango dute.

3 Sakatu **Eskaneatzea**

Gailua WiFi sare bati lotzen zaionean, automatikoki konektatuko da sare horretara, eskuragarri dagoen guztietan, pasahitza berriro idatzi beharrik gabe. Gailua sarera automatikoki konekta ez dadin, aukeratu sare-zerrendan, eta sakatu **AHAZTU**.

# USB modema/Bluetooth-a eta Konexio partekatua

## USB modema eta Konexio partekatua funtzioei buruz

Erabili funtzio hau Interneteko konexiorik eskuragarri ez badago gailuaren datu mugikorren konexioa partekatzeko ordenagailuekin eta beste gailu batzuekin. WiFi, USB edo bluetooth funtzioen bidez ezarri ahal izango dituzu konexioak.

Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea funtzio hau erabiltzeagatik.

## Konexio partekatua erabiltzea

Erabili gailua WiFi eremu gisa, beste gailu batzuekin datu-konexioa partekatzeko.

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Ainguraketa eta Wi-Fi er.** → **Wi-Fi eremua**.

2 Lerratu **Partekatutako konexioa** etengailua, aktibatzeko.

- bistaratuko da egoera-barran. Gainerako gailuek zurea aurkitu ahal izango dute WiFi sareen zerrendan.
- Konexio partekaturako pasahitz bat ezartzeko, sakatu ⁝ → **Konfiguratu berogunea** compartida eta hautatu segurtasun-maila bat. Gero, idatzi pasahitza, eta sakatu **GORDE**.

3 Beste gailuaren pantailan, bilatu eta aukeratu zurea WiFi sareen zerrendan.

4 Gailua konektatuta dagoela, erabili datu mugikorren konexioa Internetera sartzeko.

## USB modemaren funtzioa erabiltzea

Partekatu gailuaren datu mugikorren konexioa beste gailu batzuekin, USB kable bat erabiliz.

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Ainguraketa eta Partekatutako konexioa.**

2 Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.

3 Hautatu **USB ainguraketa.**

bistaratuko da egoera-barran, bi gailuak konektatuta daudenean.

4 Ordenagailuan, erabili gailuaren datu mugikorren konexioa.

## Bluetooth modema funtzioa erabiltzea

Partekatu gailuaren datu mugikorren konexioa beste gailu batzuekin, bluetooth bidez. Ziurtatu konektatzen ari zaren ordenagailuak Bluetootha onartzen duela.

1 Lotu gailua beste gailuarekin, bluetooth bidez. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu Bluetootha beste gailu batzuekin lotzea.

2 Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Ainguraketa eta Partekatutako konexioa**.

3 Markatu **Bluetooth ainguraketa**.

4 Konektatutako gailuan, ireki bluetootharen doikuntza-pantaila, eta sakatu → **Internet.**

bistaratuko da egoera-barran, bi gailu konektatuta daudenean.

5 Gailua konektatuta dagoela, erabili datu mugikorren konexioa Internetera sartzeko.

Konektatzeko metodoak aldatu egin litezke konektatzen diren gailu-moten arabera.

# Pertsonalizatzea

## Pantaila nagusia eta aplikazioak konfiguratzea

### Pantaila nagusia konfiguratzea

#### Elementuak gehitzea

Aplikazio-pantailan, luze sakatu aplikazio bat, eta, gero, mugitu pantaila nagusiraino.

Widgetak gehitzeko, luze sakatu pantaila nagusiko leku huts bat, ukitu Widgets, luze sakatu widget bat, eta, ondoren, eraman pantaila nagusiraino.

#### Elementu bat mugitzea eta ezabatzea

Luze sakatu elementu bat pantaila nagusian, eta, gero, mugitu beste leku bateraino.

Elementua beste panel batera eramateko, mugitu pantailaren alboetako bateraino.

Aukera duzu, halaber, sarrien erabiltzen dituzun aplikazioak lasterbideen eremura eramateko (pantaila nagusiaren beheko aldean).

Elementu bat ezabatzeko, luze sakatu. Gero, mugitu Ezabatu aukeraraino (pantailaren goiko aldean dago).

#### Karpeta bat sortzea

1 Pantaila nagusian, luze sakatu aplikazio bat, eta mugitu **Karpeta sortu** aukeraraino (pantailaren goiko aldean dago).

2 Sartu karpetarako izen bat.

3 Sakatu +, aukeratu karpetara eraman nahi dituzun aplikazioak, eta sakatu **Egina**.

### Panelak administratzea

Pantaila nagusian, luze sakatu leku huts bat panel bat gehitzeko, mugitzeko edo ezabatzeko.

Panel bat gehitzeko, joan ezkerrera, azken paneleraino iritsi arte, eta sakatu +.

Panel bat mugitzeko, luze sakatu panel baten aurrebista, eta, gero, mugitu beste kokapen bateraino.

Panel bat kentzeko, luze sakatu panelaren aurrebista, eta mugitu Ezabatu aukeraraino (pantailaren goiko aldean dago).

Panel bat pantaila nagusiko panel nagusi gisa konfiguratzeko, sakatu ⌂.

## Aplikazio-pantaila konfiguratzea

### Sailkatze-metodoa aldatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu ⋮ → **Nola ikusi**, eta hautatu sailkapen-metodo bat.

### Aplikazioak ezkutatzea

Ezkutatu aplikazio-pantailan ikusi nahi ez dituzun aplikazioak.

Aplikazio-pantailan, sakatu ⋮ → **Ezkutatu aplikazioak**, aukeratu aplikazioak, eta, gero, sakatu Hecho.

Ezkutatutako aplikazioak bistaratzeko, sakatu ⋮ → **Erakutsi ezkut. apl.**, aukeratu aplikazioak, eta, ondoren, sakatu **Hecho**.

### Elementuak mugitzea

Aplikazio-pantailan, sakatu ⋮ → **Editatu** Luze sakatu elementu bat, eta mugitu kokaleku berri batera.

Elementua beste panel batera eramateko, mugitu pantailaren alboetako bateraino.

Elementu bat beste panel batera mugitzeko, eraman Sortu orria aukeraraino (pantailaren goiko aldean dago).

# Pantaila-atzealdeak eta melodiak ezartzea

## Pantailaren horma-irudia ezartzea

Hautatu gailuan gordeta daukazun irudi bat edo argazki bat pantaila nagusirako edo blokeo-pantailarako atzealde gisa.

1 Pantaila nagusian, luze sakatu leku huts bat, eta, ondoren, sakatu **Fondos**. Bestela, aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Pantaila** → **Pantaila atzealdea**.

2 Aukeratu pantaila bat, pantaila-atzealde bat aldatzeko edo aplikatzeko.

3 Joan ezkerrera edo eskuinera, eta hautatu pantailaren beheko aldean dauden irudietako bat.

Gailuaren kamerarekin ateratako argazkiak edo beste irudi batzuk aukeratzeko, sakatu Desde Galería.

4 Sakatu **PANTAILA ATZEALDE GISA EZARRI** edo **GORDE**.

## Melodia aldatzea

Aldatu sarrerako deien eta jakinarazpenen melodiak.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Soinuak** eta jakinarazpenak.

Sarrerako deietarako melodia bat zehazteko, sakatu **Dei tonuak**, aukeratu melodia bat, eta sakatu **Ados** Gailuan edo zure kontuan melodia gisa gordetako abesti bat erabiltzeko, sakatu **Añadir melodía**.

Jakinarazpenetarako melodia bat zehazteko, sakatu **Jakinarazpenak**, aukeratu melodia bat, eta sakatu, ondoren, **Ados**.

# Pantaila desblokeatzeko modua aldatzea

Pantaila desblokeatzeko modua aldatu egin dezakezu, beste inor zure datu pertsonaletara sar ez dadin.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Blokeo pantaila** → **Pantailaren desblokeoa** , eta, gero, aukeratu desblokeatzeko modu bat. Gailuak kode bat eskatuko du desblokeatzen saiatzen zaren bakoitzean.

Desblokeatzeko kodea ahazten baduzu, eraman gailua Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzura, berrezar dezaten.

### Eredua

Marraztu eredu bat, lau puntu edo gehiago elkartuz, eta, gero, marraztu berriro, berresteko. Definitu beste pasahitz bat, eredua ahazten baduzu pantaila desblokeatu ahal izateko.

### Ezkutuko zenbakia

Sor ezazu ezkutuko zenbaki bat. Idatzi gutxienez lau zenbaki, eta, gero, idatzi berriro ezkutuko zenbakia, berresteko.

### Pasahitza

Pasahitzek karaktereak eta zenbakiak izaten dituzte. Idatzi gutxienez lau karaktere (zenbakiak eta ikurrak erabiliz), eta, gero, idatzi berriro pasahitza, berresteko.

# Kontuak konfiguratzea

## Kontuak gehitzea

Gailuak erabiltzen dituen aplikazioetako batzuetarako kontu bat erregistratua izan behar da. Sortu kontuak, gailua ahalik eta gehiena aprobetxatzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Kontua** → **Gehitu kontua**, eta hautatu kontu-zerbitzu bat. Gero, bete pantailan agertzen diren jarraibideak, kontuaren konfigurazioa osatzeko.

Edukiak zure kontuekin sinkronizatzeko, aukeratu kontu bat, eta aukeratu sinkronizatu nahi dituzun elementuak.

## Kontuak ezabatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Kontua**, hautatu kontu bat, eta, ondoren, sakatu ⋮ → **Ezabatu kontua**.

# Telefonoa

## Deitzea

Aplikazio-pantailan, sakatu **Deia.**

Sakatu Teclado, idatzi telefono-zenbaki bat, eta, ondoren, sakatu ahots-dei bat egiteko, edo sakatu bideo-dei bat egiteko. **Registros, Favoritos,** eta **Contactos** ataletan dauden telefono-zenbakietara ere deitu dezakezu.




### Erregistro- edo kontaktu-zerrenda erabiliz deiak egitea

Sakatu **Erregistroak** edo **Kontaktuak**, eta, gero, lerratu hatz bat eskuinera kontaktuaren edo telefono -zenbakiaren gainetik, deia egiteko.

### Nazioarteko dei bat egitea

Sakatu **Teklatu.**

Luze sakatu **0**, + ikurra bistaratu arte. Idatzi herrialdeko kodea, area-kodea eta telefono-zenbakia; eta, ondoren, sakatu .

Nazioarteko irteerako deiak blokeatzeko, sakatu ⋮ → **Deitu** → **Ezarpen gehiago** → **Dei murrizketa**. Gero, aukeratu dei-mota bat, eta desgaitu **Nazioarteko deiak** aukera.

# Deiak jasotzea

## Dei bati erantzutea

Dei bat jasotzen duzunean, arrastatu zirkulu handitik kanpora.

## Dei bat ez onartzea

Dei bat jasotzen duzunean, arrastatu zirkulu handitik kanpora.

Sarrerako dei bat onartzen ez duzunean mezu bat bidaltzeko, mugitu gorantz ukapen-mezuaren barra.

Zenbait errefusatze-mezu sortzeko, aplikazio-pantailan, ukitu **Teléfono** → ⋮ → **Ezarpenak** → **Deitu** → **Dei ukatzea** → **Ukatze mezuak** → +.

## Dei galduak

Dei galdu bat baduzu, bistaratuko da egoera-barran. Dei galduen zerrenda ikusteko, ireki jakinarazpen-panela. Bestela, aplikazio-pantailan, sakatu **Teléfono** → **Erregistroak**, dei galduak ikusteko.

# Hitz egiten ari zarela dituzun aukerak

## Ahots-dei bat martxan dagoenean

Aukera hauek dituzu:

- **Gehitu deia:** bigarren dei bat markatzeko.
- **Teklatua:** teklatua irekitzeko.
- **Deia am.:** uneko deia bukatzeko.
- **Bozgorailua:** bozgorailua aktibatzeko edo desaktibatzeko. Bozgorailua erabiltzen ari zarela, hitz egin mikrofonotik hurbil (gailuaren goiko aldean), eta jarri gailua belarrietatik urrun.
- **Isilarazi:** mikrofonoa desaktibatzeko, beste solaskideak ez diezazun entzun.
- **Bluetooth:** bluetooth entzungailu batera aldatzeko, halakorik badago gailuari konektatuta.

Sakatu ⋮, aukera gehiago ikusteko.

# Bideo-dei bat martxan dela

Aukera hauek dituzu:

- ⋮ → **Ezkutatu:** solaskideak zure irudia ikus ez dezan.
- ⋮ → **Irteerako irudia::** solaskideari erakusteko irudi bat hautatzeko.
- ⋮ → **Irudia kapturatu**: solaskidearen irudia ateratzeko.
- ⋮ → **Grabatu bideoa:** solaskidearen irudien bideo bat grabatzeko.
- ⋮ → **Oroigarriak:** ohar bat sortzeko.
- ⋮ → **Mezuak:** mezu bat bidaltzeko.
- ⋮ → **Teklatua:** teklatua irekitzeko.
- ⋮ → **Bozgorailua aktibatuta / desaktibatuta:** bozgorailua aktibatzeko edo desaktibatzeko. Bozgorailua erabiltzen ari zarela, hitz egin mikrofonotik hurbil (gailuaren goiko aldean), eta jarri gailua belarrietatik urrun.
- ⋮ → **Erantzungailura / Telefonora aldatu:** Bluetooth bidez konektatutako entzungailuetara pasatzen da soinua, edo, bestela, gailuaren bozgorailuetara.

Sakatu pantaila, aukera hauek erabiltzeko:

- **Aldatu:** aurreko kameraren eta atzekoaren artean aldatzeko.
- **Isilarazi:** mikrofonoa desaktibatzeko, beste solaskideak ez diezazun entzun.
- **Deia am,:** uneko deia bukatzeko.

# Kontaktuak

## Kontaktuak gehitzea

### Beste gailu batzuetatik kontaktuak ekartzea

Kontaktuak beste gailu batzuetatik zurera ekar ditzakezu. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu Beste gailu batetik datuak transferitzea.

### Kontaktuak eskuz sortzea

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Kontaktuak**.

2 Sakatu +, eta idatzi kontaktu bati buruzko informazioa.

- ⊕: irudi bat gehitzeko.
- + / −: kontaktu-eremu bat gehitzeko edo ezabatzeko.

3 Sakatu **GORDE**

**Teklatua** erabiliz kontaktu-zerrendari telefono-zenbaki bat gehitzeko, sakatu Teclado, idatzi zenbakia, eta sakatu **Gehitu kontaktuetara**.

## Kontaktuak inportatzea eta esportatzea

Inportatu kontaktuak gailuan biltegiratzeko zerbitzuetan, edo esportatu kontaktuak gailutik biltegiratze-zerbitzuetara.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Contactos**.

Sakatu ⋮ → **Ezarpenak** → **Kontaktuak** → **Inportatu/esportatu**, eta, gero, hautatu inportatzeko edo esportatzeko aukera bat.

# Kontaktuak bilatzea

Aplikazio-pantailan, sakatu **Kontaktuak**.

Erabili modu hauetako bat bilatzeko:

- Mugitu gora edo behera kontaktu-zerrendan.
- Sakatu bilaketa-eremua (kontaktu-zerrendaren goiko aldean dago), eta sartu bilaketa-irizpideak.

Kontaktu bat aukeratu ondoren, aukeratu hauetako bat.

- ★: gogoko kontaktuei gehitzeko.
- /: ahots-dei bat edo bideo-dei bat egiteko.
- : mezu bat idazteko.
- : mezu elektroniko bat idazteko.

## Pantaila nagusian kontaktuen lasterbideak gehitzea

Gehitu sarrien hitz egiten duzun kontaktuen lasterbideak pantaila nagusian.

1. Aplikazio-pantailan, sakatu **Kontaktuak.**
2. Hautatu kontaktu bat eta luze sakatu.
3. Sakatu ⋮ → **Gehitu lasterbidea** pantaila nagusira.

# Mezuak eta posta elektronikoa

## Mezuak

### Mezuak bidaltzea

Testu-mezuak (SMS) edo multimedia-mezuak (MMS) bidaltzea.

Litekeena da atzerrian zaudenean mezuak bidali edo jasotzeagatik kargu osagarriak izatea.

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Mezuak**.

2 Sakatu .

3 Gehitu hartzaileak, eta idatzi mezu bat.




4 Sakatu  mezua bidaltzeko.

### Sarrerako mezuak ikustea

Kontaktuen araberako katetan elkartzen dira mezuak. Aukeratu kontaktu bat, pertsona horren mezua ikusteko.

Litekeena da atzerrian zaudenean mezuak bidali edo jasotzeagatik kargu osagarriak izatea.

Mezu bat ikusten duzun bitartean, sakatu ⋮ aukera gehiago ikusteko.

# Posta elektronikoa

## Posta elektronikoko kontuak konfiguratzea

Aplikazio-pantailan, sakatu **Helbide elektronikoa.**

**Posta elektronikoa** lehen aldiz irekitzen duzunean, konfiguratu kontu bat.

Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza. Posta elektronikoko kontu pribatu baterako, sakatu **HURRENGOA**; edo sakatu **EZKUZKO KONFIGURAZIOA**, laneko kontu elektroniko baterako. Gero, segi pantailako jarraibideei, konfigurazioa amaitzeko.

Posta elektronikoko beste kontu bat konfiguratzeko, ukitu ☰ → **KUDEATU KONTUAK** → **+**.

Posta elektronikoko kontu bat baino gehiago badituzu, haietako bat konfigura dezakezu kontu lehenetsi gisa. Sakatu ☰ → **KUDEATU KONTUAK,** aukeratu kontu bat, eta, gero, markatu Lehenetsia.

## Mezu elektronikoak bidaltzea

Aplikazio-pantailan, sakatu **Helbide elektronikoa**.

Sakatu ✎, pantailaren behealdean, mezu elektroniko bat idazteko.



# Mezu elektronikoak irakurtzea

Aplikazio-pantailan, sakatu **Helbide elektronikoa.**

Sakatu ☰, aukeratu erabili nahi duzun posta-kontua, eta mezu elektroniko berriak berreskuratuko dira. Mezu berriak eskuz jasotzeko, sakatu ↻.

Sakatu ireki nahi duzun mezu elektronikoa, irakurtzeko.



# Kamera

## Oinarrizko argazki-ateratzea

### Argazkiak ateratzea edo bideoak grabatzea

1. Aplikazio-pantailan, sakatu **Kamera**.

2. Aurrebistako pantailan, sakatu kamerarekin fokuratu nahi duzun irudia.

3. Sakatu , argazki bat ateratzeko, edo sakatu , bideo bat grabatzeko.
   - Bereizi bi hatz pantailan zooma handitzeko, eta elkartu txikitzeko.
   - Grabatzen ari zarela bideoan grabatzen ari zarenaren argazki bat egin nahi baduzu, sakatu .




- Kamera automatikoki itzaliko da erabiltzen ari ez bazara.
- Begiratu lentea garbi dagoen. Garbi ez badago, baliteke gailuak ondo ez funtzionatzea be-reizmen handia behar duten modu batzuetan.

### Kamera martxan jartzea blokeo-pantailan

Une berezietan argazkiak azkar-azkar ateratzeko, abiarazi **Kamera** pantaila blokeatuan.

Pantaila blokeatuta dagoela, mugitu zirkulu handitik kanpora. bistaratzen ez bada, ireki aplikazio -pantaila, ukitu **Ezarpenak** → **Blokeatu pantaila**, eta, ondoren, markatu **Kamera lasterbidea.**

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Kamera erabiltzeko arauak

- Ez egin inori argazkirik edo ez grabatu bideorik baimenik gabe.
- Ez egin argazkirik eta ez grabatu bideorik legez debekatuta dagoen lekuetan.
- Ez egin argazkirik eta ez grabatu bideorik inoren pribatutasunari eragin diezaiokezun lekuetan.

# Argazkiak ateratzeko modua

## Auto

Erabili modu hau kamerak ingurua aztertu eta argazkirako modurik onena zehaztu dezan.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Kamera** → → **Auto**.

## Beauty face

Erabili modu hau argazki bat ateratzean aurpegiak argiztatu nahi badituzu; hala, leunagoa izango da argazkia. Aplikazio-pantailan, sakatu **Kamera** → → **Aurpegi ederra.**

## Selfie

Erabili modu hau selfieak aurreko kamerarekin ateratzeko.

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Kamera.**

2 Sakatu aurreko kamera erabiltzeko.

3 Erakutsi esku-ahurra pantailari, edo sakatu zure buruari argazki bat ateratzeko.

## Panorámica

Erabili modu hau zenbait argazki elkartuta argazki bakar bat osatzeko. Gailuak ikurra jarriko dio argazkiari **Galería** barruan.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Kamera** → → **Panorama.**

Irudirik onena eskuratzeko, jarraitu aholku hauei.

- Mugitu kamera, poliki, norabide batean.
- Mantendu argazkia kameraren bisorearen markoaren barruan.
- Saiatu ez ateratzen argazkiak kontrasterik gabeko atzealdeekin (zeru hutsa edo horma laua).

## Argazki-sorta

Erabili modu hau mugitzen ari diren objektuen edo pertsonen argazkiak ateratzeko.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Kamera** → → **Ater. jarr.**.

Luze sakatu argazki bat baino gehiago segidan ateratzeko.

## Kirolak

Erabili modu hau mugitzen ari diren helburuen argazkiak ateratzeko.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Kamera** → → **Kirolak.**

# Kameraren doikuntzak

Aplikazio-pantailan, sakatu **Kamera** → ⚙. Baliteke aukeretako batzuk eskuragarri ez egotea argazki- eta bideo-moduetan.

- : irudia alderantzikatzeko, jatorrizko eszenaren aurkako irudia sortzeko. Funtzio hau aurreko kamera erabiltzen denean bakarrik dago aukeran.
- : flasha aktibatzeko edo desaktibatzeko.
- : atzerako kontaketarekin argazkiak ateratzeko.
- : aukeratu iragazki-efektu bat, argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko.
- 3.9M / 2.0M: bereizmena aukeratzeko. Bereizmen altuak erabiltzen badira, argazkiak kalitate handiagokoak izango dira, baina leku gehiago hartuko dute memorian.

Aukera gehiago erabiltzeko, sakatu •••.

- **Fokatze modua:** fokuratzeko modu bat aukeratzeko. Autofokua moduan, kamerak kontrolatzen du fokuratzea. Makroa, berriz, oso hurbil dauden objektuetarako da.
- **Selfie:** konfiguratu gailua esku-ahurra detekta dezan selfieak ateratzeko erabili ahal izateko.
- **Aurpegi ederra**: konfiguratu gailua argazki bat ateratzeko aurpegiak argiztatuz, argazkirik hobeak lortzeko.
- **Esposizio balioa**: esposizioaren balioa aldatzeko. Kameraren sentsoreak jasotzen duen argi-kantitatea zehazteko. Argi gutxi dagoen lekuetan, esposizio handiagoa erabili behar da.
- **ISO:** ISO balio bat hautatzeko. Kamerak argirako duen sentsibilitatea kontrolatzen du. Karretedun kameren baliokideak neurtzen dira. Balio txikiak objektu finkoetarako edo oso argietarako erabiltzen dira. Balio handienak argi gutxiko objektuetarako edo azkar mugitzen direnetarako dira egokiak.
- **Zurien balantzea**: aukeratu zurien balantze egoki bat, irudien kolorea benetakoaren antzekoa izan dadin. Argi-baldintza espezifikoetarako diseinatuta daude doikuntzak. Kamera profesionaletan zurien balantzearen esposiziorako egon ohi den bero-tartearen antzekoak dira doikuntza horiek.
- **Neurketa moduak**: neurtzeko metodo bat aukeratzeko. Argiztapen-balioak nola kalkulatu zehazten du. Centrado compensado aukerak eszenaren erdialdeko atzeko argia neurtzen du. Punto aukerak, berriz, leku espezifiko bateko argi-balioa neurtzen du. Matriz aukerak eszena guztia orekatzen du.
- **Ukitu arg. ateratzeko:** sakatu irudia, aurrebistako pantailan, argazkiak ateratzeko.
- **Bideoaren neurria:** bereizmena aukeratzeko. Bereizmen altuak erabiltzen badira, bideoak kalitate handiagokoak izango dira, baina leku gehiago hartuko dute memorian.
- **Grabaketa modua:** grabatzeko modua aldatzeko.

- **Kokapen etiketak:** konfiguratu gailua, kokapen-etiketa gehitzeko argazkiari.

  - GPS seinalea hobetzeko, ez atera argazkirik seinalea oztopatu litekeen tokietan edo egoeretan, besteak beste, eraikinen artean, eremu baxuetan edo eguraldi txarra egiten duenean.
  - Kokapen-etiketa gehitua duen argazki bat partekatzen bada, besteek kokapen-informazioa ikus dezakete.

- **Biltegir. kokapena:** argazkiak eta bideoak memoriako zein kokapenetan gordeko diren aukeratzeko.
- **Sareta lerroak:** bisorean gidak agertzeko, izakiak hautatzean argazkia osatzen laguntzeko.
- **Bolumen tekla:** gailua konfiguratzeko, bolumen-botoia erabili ahal izan dadin obturadorea edo zooma kontrolatzeko.
- **Berrezarri ezarpenak**: kameraren doikuntzak berrezartzeko.

Eskuragarri dauden aukerak desberdinak dira erabiltzen den moduaren arabera.

# Galeria

## Gailuan edukia ikustea

Aplikazio-pantailan, sakatu **Galeria**, edo aukeratu irudi bat edo bideo bat.

Bideo-fitxategiek ikonoa dute miniaturako aurrebistan.

Menu-barra eta aurrebistako miniaturak ezkutatzeko edo bistaratzeko, sakatu pantaila.



# Aplikazio eta funtzio erabilgarriak

## Egutegia

### Gertaerak edo zereginak sortzea

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Egutegia.**

2 Sakatu . Bestela, aukeratu gertaerarik edo zereginik ez duen data bat, eta sakatu berriz data. Egun horretan gertaera edo zereginen bat gordeta badago, sakatu gezia, eta, gero, +.

3 Aukeratu edozein gertaera edo zeregin, eta idatzi xehetasunak.

- **Gehitu gertaera:** gertaera baterako hasiera- eta amaiera-data zehazteko. Errepikapen-doikuntza bat konfigura dezakezu (hautazkoa).
- **Gehitu ataza:** zeregin bat egun jakin batera gehitzeko. Lehentasun-doikuntza bat konfigura dezakezu (hautazkoa).




4 Sakatu **GORDE**, gertaera edo zeregina gordetzeko.

## Gertaerak eta zereginak zure kontuekin sinkronizatzeko

Aplikazio-pantailan, sakatu **Egutegia**.

Gertaerak eta zereginak zure kontuekin sinkronizatzeko, sakatu ⋮ → **Sink**.

Sinkronizatzeko kontuak gehitzeko, sakatu ⋮ → **Egutegiak** → **Gehitu kontua**. Gero, aukeratu kontu bat, sinkronizatzeko, eta hasi saioa. Kontu bat gehitzen duzunean, zirkulu berde bat bistaratuko da izenaren alboan.

Kontu baten sinkronizazio-aukera aldatzeko, aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Kontua,** eta, gero, aukeratu kontu-zerbitzu bat.

# Internet

1. Aplikazio-pantailan, sakatu **Internet.**
2. Sakatu helbide-eremua.
3. Idatzi web-helbidea edo hitz gako bat, eta sakatu **Joan**. Tresna-barrak ikusteko, arrastatu hatza behera, pixkanaka.



# Bideoa

## Bideoak erreproduzitzea

Aplikazio-pantailan, sakatu **Bideoa**.

Hautatu erreproduzitu nahi duzun bideoa.




Erreprodukzioa martxan dela kontrol-panelaren kokapena pertsonalizatzeko, sakatu ⋮ → **Ezarpenak**, hautatu **Mini kontrolagailua,** eta, ondoren, sakatu **ITXI.** Gero, sakatu ◀ edo ▶, panel-kontrola pantailaren aldeetako edozeinetara eramateko.

# Erlojua

## Alarma

Aplikazio-pantailan, sakatu **Ordularia** → **Alarma**.

### Alarmak konfiguratzea

Sakatu + alarma-zerrendan, konfiguratu alarma bat, aukeratu zein egunetan errepikatuko den, konfiguratu beste aukera batzuk, eta sakatu **GORDE**. Alarmak aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu alarmaren alboan dagoen (...), alarma-zerrendan.

- **Ordularia:** konfiguratu alarma zer denbora-tarterekin eta zenbat aldiz errepikatu behar den aktibazio-orduaren ondoren.
- **Alarma adimenduna:** alarma adimendunerako ordutegi bat eta tonu bat konfiguratzeko. Alarma adimenduna martxan jarriko da, bolumen baxuan, zehaztutako alarma baino minutu batzuk lehenago. Alarma adimendunaren bolumena pixkanaka handituz joango da, itzali arte edo zehaztutako alarmak jo arte.

### Alarmak gelditzea

Mugitu ✕ zirkulutik kanpora alarma bat geldiarazteko. Atzerapen-aukera jada desaktibatu baduzu, mugitu zz zirkulutik kanpora, denbora-tarte jakin bat igaro ondoren alarma errepikatzeko.

### Alarmak ezabatzea

Sakatu ⋮ → **Hautatu**, hautatu alarmak, eta, ondoren, sakatu 🗑.

## Munduko erlojua

Aplikazio-pantailan, sakatu **Ordularia** → **Munduko erlojua**.

### Erlojuak sortzea

Sakatu +, eta, gero, idatzi hiri baten izena edo aukeratu zerrendako hiri bat.

## Erlojuak ezabatzea

Sakatu ⋮ → **Hautatu**, hautatu erlojuak, eta, ondoren, sakatu 🗑.

## Kronometroa

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ordularia** → **Kronometroa**.

Sakatu **ABIARAZI**, gertaera baten iraupena kontrolatzeko. Sakatu **BIRA**, denbora etapen arabera erregistratzeko.

Denbora neurtzeari uzteko, sakatu **GELDITU**. Erregistratutako denborak ezabatzeko, sakatu **BERREZARRI**.

## Atzerako kontaketa

Aplikazio-pantailan, sakatu **Ordularia** → **Cuenta atrás.**

Definitu iraupena, eta, gero, sakatu **ABIARAZI**.

Atzerako kontaketak jotzen duenean, mugitu ✖ zirkulutik kanpora.

## Kalkulagailua

Erabili aplikazio hau kalkulu sinpleak nahiz konplexuak egiteko.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Kalkulagailua**.

Biratu gailua, ikuspegi horizontala izateko eta kalkulagailu zientifikoa bistaratzeko. **Biratu pantaila** funtzioa desaktibatuta badago, sakatu ⋮ → **Kalkulagailu zientifikoa**.

# Oharra

Erabili aplikazio hau oharrak sortzeko eta kategorien arabera antolatzeko.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Oroigarria**.

### Oharrak idaztea

Sakatu ⊕ ohar-zerrendan, eta idatzi ohar bat. Ohar bat idazten duzun bitartean, erabili aukera haueta-ko bat:

- ☰: kategoria bat sortzeko edo hautatzeko.
- 🖼: irudiak txertatzeko.
- 🎙: ahots-grabaketa bat egin eta oharrean sartzeko.

Oharra gordetzeko, sakatu **GORDE**.

Ohar bat editatzeko, sakatu ohar bat, eta sakatu edukia.

### Oharrak bilatzea

Sakatu 🔍 ohar-zerrendan, eta idatzi hitz gako bat, hura duten oharrak bilatzeko.

# Irratia

## FM irratia entzutea

Aplikazio-pantailan, sakatu **Irratia**.

Aplikazio hau erabili aurretik, entzungailuak konektatu behar dituzu gailura, irrati-antena gisa funtzio-natzen baitute.

FM irratiak eskuragarri dauden irrati-kateak bilatu eta gordeko ditu lehen aldiz martxan jartzen denean.

Sakatu , FM irratia pizteko. Irrati-kateen zerrendatik, hautatu nahi duzun irrati-katea, eta sakatu , FM irratiaren pantailara itzultzeko.




## Irrati-kateak bilatzea

Aplikazio-pantailan, sakatu **Irratia**.

Sakatu  → **Eskaneatzea**, eta, gero, hautatu bilaketa-aukera bat. FM irratiak automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.

Irrati-kateen zerrendatik, hautatu nahi duzun irrati-katea, eta sakatu , FM irratiaren pantailara itzultzeko.

# Ahots-grabagailua

## Ahots-oharrak grabatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ahots grabagailua**.

Sakatu , grabatzen hasteko. Mikrofonotik hurbil hitz egin. Sakatu , gelditzeko. Grabazioa ezeztatze-ko, sakatu . Sakatu , grabazioa amaitzeko.




## Ahots-oharrak erreproduzitzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Grabadora de voz**.

Sakatu , eta aukeratu ahots-ohar bat, erreproduzitzeko.

- / : erreprodukzioan etena egiten du edo berriz hasten du.
- / : aurreko edo hurrengo oharrera joateko.

# Google Apps

Googlek entretenimenduko, negozioetako eta sare sozialetako aplikazioak eskaintzen ditu. Baliteke Googleko kontu bat behar izatea aplikazio batzuetara sartzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu Kontuak konfiguratzea.

Aplikazio bakoitzari buruzko informazio gehiago ikusteko, erabili dagokion laguntza-menua.

Baliteke aplikazio batzuk erabilgarri ez egotea edo beste izen bat edukitzea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Chrome

Bilatu informazioa, eta nabigatu webguneetan.

## Gmail

Bidali edo jaso mezu elektronikoak Google Mail zerbitzuaren bidez.

## Google+

Partekatu zure nobedadeak, eta jaso zure senitarteko, lagun eta bestelakoen eguneraketak. Zure argazki eta bideoen segurtasun-kopiak egin ditzakezu, eta askoz gauza gehiago.

## Maps

Bilatu zure kokapena mapan, bilatu lekuak, eta ikusi zenbait lekuri buruzko datuak.

## Play Música

Ikusi, entzun eta partekatu musika gailutik.

## Play Películas

Ikusi gailuan gordetako bideoak, eta deskargatu zenbait eduki, Play Storetik ikusteko.

## Play Libros

Deskargatu liburuak Play Storetik, eta irakurri.

## Play Kiosco

Irakurri albiste eta aldizkari interesgarriak nahi duzun lekuan.

## Play Juegos

Deskargatu jokoak **Play Store**tik, eta jokatu beste pertsona batzuekin.

## Drive

Biltegiratu zure edukiak hodeian, sartu haietara edozein lekutatik, eta partekatu beste pertsona batzuekin.

## YouTube

Ikusi edo sortu bideoak, eta partekatu beste pertsona batzuekin.

## Argazkiak

Administratu gailuan gordetako eta Google+ aukeran kargatutako argazkiak, albumak eta bideoak.

## Hangouts

Hitz egin lagunekin, banaka edo taldean, eta erabili irudiak, aurpegierak eta bideo-deiak, elkarrizketetan.

## Google

Bilatu azkar elementuak Interneten edo gailuan.

## Ahots bidezko bilaketa

Bilatu azkar elementuak, hitz edo esaldi gako bat esanda.

## Googleko doikuntzak

Konfiguratu Googleren funtzioetako batzuen doikuntzak.

# Beste gailu batzuetara konektatzea

## Bluetootha

### Bluetooth funtzioari buruz

Bluetoothak haririk habeko zuzeneko konexio bat sortzen du bi gailuren artean, distantzia laburretan. Erabili bluetootha beste gailu batzuekin datuak edo multimedia-fitxategiak partekatzeko.

- Samsung-ek ez du bere gain hartzen Bluetooth funtzioaren bidez bidalitako edo jasotako datuak galtzearen, bidean atzematearen edo modu desegokian erabiltzearen ardura.
- Egiazta ezazu beti segurtasun egokia duten gailu fidagarriekin partekatzen dituzula datuak. Gailuen artean oztopoak badaude, baliteke distantzia operatiboa murriztea.
- Gerta liteke gailu batzuk (Bluetooth SIGek probatu edo baimendu gabekoak batez ere) gailuarekin bateragarriak ez izatea.
- Ez erabili bluetootha legez kanpoko helburuetarako (adibidez, fitxategien kopiak pirateatzeko edo helburu komertzialetarako elkarrizketak legez kanpo grabatzeko).

  Samsungek ez du bere gain hartzen Bluetooth funtzioa legez kanpo erabiltzeak ekar litzakeen ondorioen erantzukizunik.

## Bluetooth bidez beste gailu batzuekin lotzea

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Bluetooth**, mugitu Bluetooth etengailua, aktibatzeko, eta, gero, sakatu **BILATU**.

Detektatu diren gailu guztien zerrenda azalduko da.

Gailua ikusgai gisa konfiguratzeko, sakatu gailuaren izena.

2 Hautatu lotzeko gailu bat.

Gailua dagoeneko beste gailuarekin lotuta badago, sakatu gailuaren izena, automatikoki sortutako pasahitza berretsi gabe.

Lotu nahi duzun gailua ez badago zerrendan, eskatu gailuak ikusgaitasun-aukera aktiba dezan.

3 Onartu bluetootharen baimen-eskaera bi gailuetan, berresteko.

## Datuak bidaltzea eta jasotzea

Aplikazio askok bluetooth bidez datuak transferitzeko aukera ematen dute. Datuak, hala nola kontaktuak edo multimedia-fitxategiak, beste bluetooth gailu batzuekin parteka ditzakezu. Ekintza hauek erakusten dute nola bidaltzen den irudi bat beste gailu batera.

### Irudi bat bidaltzea

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Galeria**.

2 Aukeratu irudia.

3 Sakatu ⋖ → **Bluetooth**, eta, gero, hautatu gailu bat, irudia hara transferitzeko.

Lotu nahi duzun gailua ez badago zerrendan, eskatu gailuak ikusgaitasun-aukera aktiba dezan. Edo konfiguratu gailua ikusgai gisa, gainerako gailuentzat.

4 Onartu bluetootharen baimen-eskaera beste gailuan.

### Irudi bat jasotzea

Beste gailu batek irudi bat bidaltzen dizunean, onartu bluetootharen baimen-eskaera. Jasotako irudiak ikusteko, jo **Galería** atalera.

## Bluetooth gailuen lotura kentzea

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Bluetooth**.

Gailuak lotutako gailuak bistaratuko ditu zerrendan.

2 Sakatu ⚙, gailuaren izenaren ondoan, lotura kentzeko.

3 Sakatu **Desgaitu**.

# Wi-Fi Direct

## Wi-Fi Direct-i buruz

Wi-Fi Direct funtzioak gailuak konektatzen ditu WiFi sare baten bidez, sarbide-puntu baten beharrik gabe.

## Beste gailu batzuekin konektatzea

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Wi-Fi**, eta, gero, lerratu **Wi-Fi** etengailua, aktibatzeko.

2 Sakatu ⋮ → **Wi-Fi Direct**.

Detektatu diren gailu guztien zerrenda azalduko da.

3 Hautatu konektatzeko gailu bat.

Gailuaren izena aldatzeko, sakatu ⋮ → **Berrizendatu gailua**.

4 Onartu WiFi Direct-en baimen-eskaera beste gailuan, baieztatzeko.

# Datuak bidaltzea eta jasotzea

Datuak, hala nola kontaktuak edo multimedia-fitxategiak, beste gailu batzuekin parteka ditzakezu. Ekintza hauek erakusten dute nola bidaltzen den irudi bat beste gailu batera.

## Irudi bat bidaltzea

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Galeria**.

2 Aukeratu irudia.

3 Sakatu <→ **Wi-Fi Direct**, eta, ondoren, hautatu gailu bat, irudia hara transferitzeko.

4 Onartu WiFi Direct-en baimen-eskaera beste gailuan.

## Irudi bat jasotzea

Beste gailu batek irudi bat bidaltzen dizunean, onartu Wi-Fi Direct-en baimen-eskaera. Jasotako irudiak ikusteko, jo **Galería** atalera.

# Gailuaren konexioa amaitzea

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Wi-Fi**.

2 Sakatu ⋮ → **Wi-Fi Direct**.

Gailuak lotutako gailuak bistaratuko ditu zerrendan.

3 Sakatu **AMAITU KONEXIOA** → **ONARTU**, gailuak deskonektatzeko.

# NFC (NFC gaituta duten modeloak)

## NFC funtzioari buruz

Gailuak hurbileko komunikazio-etiketak (NFC), produktuei buruzko informazioa dakartenak, irakur ditzake. Halaber, funtzio hori erabil dezake ordainketak egiteko eta garraio-txartelak eta ikuskizunetako sarrerak erosteko, deskargatu beharreko aplikazioak deskargatuz gero.

NFC antena integratu bat dauka bateriak. Kontuz erabili bateria NFC antena ez hondatzeko.

## NFC funtzioa erabiltzea

Erabili NFC funtzioa beste gailu batzuetara irudiak edo kontaktuak bidaltzeko eta produktuei buruzko informazioa irakurtzeko NFC etiketak erabiliz. Ordainketa-funtzioa duen SIM edo USIM txartel bat sartzen baduzu, ordainketak eroso-eroso egiteko erabil dezakezu gailua.

Aplikazio-pantailan, sakatu**Ezarpenak** → **NFC**, eta, gero, sakatu **NFC** etengailua, aktibatzeko. Bestela, ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu **NFC**, aktibatzeko.

Jarri NFC antenaren eremua (gailuaren atzealdean dago) NFC etiketa batetik hurbil. Etiketaren informazioa bistaratuko da.



Egiaztatu gailuaren pantaila desblokeatuta dagoela. Bestela, gailuak ez ditu irakurriko NFC etiketak, eta ez du daturik jasoko.

## Erosketa bat egitea NFC funtzioaren bidez

NFC funtzioa ordainketak egiteko erabili ahal izateko, aldez aurretik ordainketa mugikorretako zerbitzuaren bidez erregistratu beharko duzu. Erregistratzeko edo zerbitzuari buruzko informazio gehiago jasotzeko, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **NFC**, eta, gero, sakatu **NFC** etengailuaa, aktibatzeko. Bestela, ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu NFC, aktibatzeko.

Jarri NFC antenaren eremua (gailuaren atzealdean dago) NFC txartel-irakurgailuaren gainean.

Ordainketa-aplikazio lehenetsia hautatzeko, sakatu **Ukitu eta ordaindu**, eta aukeratu aplikazio bat.

Baliteke erabilgarri dauden ordainketa-aplikazio guztiak ez egotea ordainketa-zerbitzuen zerrendan.

## Datuak bidaltzea

Erabili Android Beam funtzioa datuak bidali ahal izateko, hala nola webguneak eta kontaktuak, NFCrako gaitutako gailuetara.

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **NFC**, eta, gero, sakatu **NFC** etengailua, aktibatzeko. Bestela, ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu NFC, aktibatzeko.

2 Sakatu **Android Beam** eta lerratu **Android Beam** etengailua, aktibatzeko.

3 Aukeratu elementu bat, eta jarri beste gailuaren NFC antena zurea gailuaren NFC antenarekin kontaktuan.

4 Pantailan **Sakatu bidaltzeko** bistaratzen denean, sakatu gailuaren pantaila bidalketa egiteko.

# Mugikor bidez inprimatzea

Konektatu gailua inprimagailu batekin Wi-Fi edo Wi-Fi Direct funtzioa erabiliz, eta inprimatu irudiak edo dokumentuak.

Gerta liteke beste inprimagailu batzuk ez izatea bateragarriak gailu honekin.

## Inprimagailuko pluginak

Gehitu inprimagailuko pluginak, gailura konektatu nahi dituzun inprimagailuetarako.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Inprimatzea** → **Deskargatu plug-ina**, eta bilatu inprimagailuko plugin bat, Play Storen. Aukeratu inprimagailuko plugin bat, eta instalatu.

## Inprimagailu batera konektatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Inprimatzea**, hautatu inprimagailuko plugin bat, eta mugitu pantailaren goiko eskuineko aldean dagoen etengailua, aktibatzeko. Gailuak gailua bera konektatuta dagoen Wi-Fi sare berera konektatuta dauden inprimagailuak bilatuko dugu. Hautatu inprimagailu bat inprimagailu lehenetsi gisa erabiltzeko.

Inprimagailuak eskuz gehitzeko, hautatu inprimagailuko plugin bat, sakatu ⋮ → **Gehitu inprimagailua**, sartu xehetasunak, eta, ondoren, sakatu **ONARTU**.

Inprimatzeko konfigurazioa aldatzeko, aukeratu inprimagailuko plugin bat, eta ukitu ⋮ → **Ezarpenak.**

## Edukiak inprimatzea

Edukiak (adibidez, irudiak edo dokumentuak) ikusten dituzula, sakatu ⋮ → **Inprimatu** → ▼ → **Inprimagailu guztiak**, eta, ondoren, hautatu inprimagailua.

# Gailuaren eta datuen administratzailea

## Beste gailu batetik datuak transferitzea

Aurreko gailutik berrira datuak ekar ditzakezu Samsung Smart Switch erabiliz. Samsung Smart Switch-en bertsio hauek daude eskuragarri:

- Mugikorrerako bertsioa: datuak mugikorren artean transferitzeko. Galaxy Apps-etik edo Play Store -tik deskargatu dezakezu aplikazioa.
- Ordenagailurako bertsioa: datuak mugikorraren eta ordenagailuaren artean transferitzeko. Hemen deskargatu dezakezu aplikazioa: www.samsung.com/smartswitch.

- Samsung Smart Switch ez da bateragarria gailu edo ordenagailu batzuekin.
- Mugak aplikatzen dira. Ikusi www.samsung.com/smartswitch xehetasun gehiago izateko. Samsungentzat, oso garrantzitsua da copyrighta. Zure edukiak edo eskubideak dituzun edukiak bakarrik transferitu.

### Gailu mugikor bateko datuak transferitzea

Datuak lehengo gailutik gailu berrira transferitzea.

Deskargatu eta instalatu Smart Switch, **GALAXY Apps-etik** edo **Play Store**-tik.

Exekutatu Smart Switch eta jarraitu pantailako argibideei, datuak gailu zaharretik transferitzeko.

### Ordenagailu batetik datuak transferitzea

Gailu zaharretik ordenagailura  segurtasun-kopia bat egitea, eta datuak gailu berrira inportatzea.

1 Ordenagailuan, joan www.samsung.com/smartswitch helbidera, Smart Switch deskargatzeko.

2 Ordenagailuan, jarri martxan Smart Switch.

Gailu zaharra Samsung gailu bat ez bada, egin datuen segurtasun-kopia bat ordenagailuan, gailuaren fabrikatzaileak emandako programa baten bidez. Ondoren, egin bosgarren urratsa.

3 Konektatu gailu zaharra ordenagailura USB kable baten bidez.

4 Ordenagailuan, jarraitu pantailako argibideei gailutik datuen segurtasun-kopiak egiteko. Ondoren, deskonektatu gailu zaharra ordenagailutik.

5 Konektatu gailu berria ordenagailuarekin USB kable baten bidez.

6 Ordenagailuan, jarraitu pantailako argibideei datuak gailu berrira transferitzeko.

## Gailua datuak transferitzeko disko erauzgarri gisa erabiltzea

Eraman audio-, bideo- eta irudi-fitxategiak edo beste motaren batekoak ordenagailutik gailura eta alderantziz.

Ez deskonektatu USB kablea gailutik fitxategiak transferitzen ari diren bitartean. Hori eginez gero, datuak gal litezke edo gailua honda liteke.

Baliteke gailuak behar bezala ez deskonektatzea USB oinarri baten bidez konektatuta badaude. Konektatu gailua zuzenean ordenagailuaren USB atakara.

1 Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.

2 Ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu **Multimedia gailu gisa kon.** → **Multimedia gailua (MTP)**.

Ordenagailuak multimedia-transferentziako protokoloa (MTP) onartzen ez badu edo kontrolagailuak instalatuta ez badaude, sakatu **Kamara (PTP).**

3 Transferitu fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean.

# Gailua eguneratzea

Software berrienarekin eguneratu dezakezu telefonoa.

## "Firmware Over-the-air" zerbitzuaren bidez eguneratzea

Gailua eguneratu dezakezu firmware over-the-air (FOTA) zerbitzuaren software-bertsio berrienarekin.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Gailuari buruz** → **Software eguneraketak** → **Eguneratu orain.**

Automatikoki eguneratzerik ba ote dagoen egiaztatzeko, markatu **Actualización automática**. Eguneratzeak Wi-Fi konexioa aktibo dagoenean bakarrik deskargatzeko, markatu **Wi-Fi bakarrik**

## Smart Switch-ekin eguneratzea

Konektatu gailua ordenagailu batekin, eta eguneratu gailuaren softwarea azken bertsioarekin.

1 Ordenagailuan, zoaz www.samsung.com/smartswitch helbidera, Smart Switch deskargatu eta instalatzeko.

2 Ordenagailuan, jarri martxan Smart Switch.

3 Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.

4 Softwarearen bertsio berri bat badago eskuragarri, jarraitu pantailako argibideei gailua eguneratzeko.

- Ez itzali ordenagailua eta ez deskonektatu USB kablea gailua eguneratzen ari den bitartean.
- Gailua eguneratzen ari dela ez konektatu multimedia-gailurik ordenagailura. Bestela, baliteke eguneraketa-prozesua oztopatzea. Eguneratzen hasi aurretik, deskonektatu multimedia-gailu guztiak ordenagailutik.

# Segurtasun-kopiak egitea edo datuak berrezartzea

Babestu datu pertsonalak, aplikazioen datuak eta haien doikuntzak gailuan. Datu konfidentzialen segurtasun-kopia bat egin dezakezu segurtasun-kopien kontu batean, eta haiek beste une batean eskuratu.

## Google kontuak erabiltzea

1 Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak**.

2 Sakatu **Babes kopia eta berrezarri**, eta hautatu **Egin nire dat. bab. kop.**.

3 Sakatu **Babes kopia kontua** eta hautatu kontu bat, segurtasun-kopia gisa.

Datuak berrezartzeko, Googleko kontuan saioa hasi beharko duzu konfigurazio-laguntzailearen bidez. Gailuan fabrikako datuak berrezarriz abiarazi eta ireki ahalko duzu konfigurazio-laguntzailea. Googleko kontuan konfigurazio-laguntzailerik gabe hasten baduzu kontua, gailuak ez ditu berriro berrezarriko segurtasun-kopiako datuak

# Datuak berrezartzea

Ezabatu gailuaren doikuntza guztiak eta gailuko datu guztiak. Fabrikako datuak berrezarri aurretik, ziurtatu gailuan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia egin dela. Kontsultatu Segurtasun-kopiak egitea edo datuak berrezartzea, informazio gehiago eskuratzeko.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak** → **Babes kopia eta berrezarri** → **Berrezarri fabrika datuak** → **BERREZARRI GAILUA** → **Ezabatu guztia**. Gailua automatikoki berrabiaraziko da.

# Doikuntzak

## Doikuntzei buruz

Erabili aplikazio hau gailua konfiguratzeko, aplikazioen aukerak konfiguratzeko eta kontuak gehitzeko.

Aplikazio-pantailan, sakatu **Ezarpenak**.

## Konexioak

### WiFi-a

Aktibatu WiFi funtzioa, WiFi sare batera konektatzeko eta Internetera nahiz sareko beste gailu batzuetara sartzeko.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Wi-Fi**, eta, gero, sakatu **Wi-Fi** etengailua, aktibatzeko.

Sare-konexio egonkor bat eduki dezakezu Wi-Fi sarea edo sare mugikorra automatikoki hautatuz, seinalerik onena erabiltzeko. Sare batetik bestera automatokiko joateko, hautatu Smart network switch.

Aukerak erabiltzeko, sakatu ⋮.

- **Eskaneatzea :** eskuragarri dauden sareak bilatzeko.
- **Wi-Fi Direct:** Wi-Fi Direct aktibatzeko eta gailuak zuzenean Wi-Fi bidez konektatzeko, fitxategiak partekatzeko.
- **Aurreratua:** WiFi-aren doikuntzak pertsonalizatzeko.
- **WPS sakatze-botoia:** WPS botoi batekin babestutako WiFi sare batera konektatzeko.
- **WPS PIN sarrera:** WPSko PIN batekin babestutako WiFi sare batera konektatzeko.

#### WiFi-a aktibo ez izateari buruzko politika konfiguratzea

Sakatu ⋮ → **Aurreratua** → **Utzi Wi-Fia piztuta gauean**.

Pantaila desaktibatuta dagoela, gailuak automatikoki desaktibatuko ditu WiFi bidezko konexioak. Hori gertatzen denean, gailua automatikoki sartzen da sare mugikorretara, haiek erabiltzeko konfiguratuta badago. Baliteke horrek datuak transferitzeagatiko kostuak izatea. Gastu gehigarriak saihesteko, konfiguratu aukera hau **Beti** gisa.

## Bluetootha

Aktibatu bluetooth funtzioa informazioa distantzia txikietan trukatzeko.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Bluetooth**, eta, gero, sakatu Bluetooth etengailua, aktibatzeko.

Aukera gehiago erabiltzeko, sakatu ⋮.

- **Ikusgait. denbora muga:** gailua ikusgai zenbat denboran egongo den definitzeko.
- **Jasotako fitxategiak:** bluetooth bidez jasotako fitxategiak bistaratzeko.
- **Berrizendatu gailua:** gailuaren izena aldatzeko.

## USB modema/Bluetooth-a eta Konexio partekatua

Erabili gailua WiFi eremu eramangarri gisa, beste gailu batzuekin datu-konexioa partekatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus USB modema/Bluetooth-a eta Konexio partekatua.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Ainguraketa eta Partekatut….**

- **Partekatutako konexioa:** erabili Conexión compartida, datu mugikorren konexioa partekatzeko ordenagailuekin edo beste gailu batzuekin, WiFi sarearen bidez. Funtzio hau erabil daiteke, sare -konexioa erabilgarri ez badago.
- **USB ainguraketa**: USB modem bat erabiltzeko, gailuaren datu mugikorren konexioa USB bidez ordenagailu batekin partekatu ahal izateko. Ordenagailu batera konektatzen denean, gailua ordenagailurako haririk gabeko modem gisa erabiltzen da.
- **Bluetooth ainguraketa:** modema bluetooth bidez erabiltzeko, gailuaren datu mugikorren konexioa partekatzeko ordenagailuekin edo beste gailu batzuekin, bluetooth bidez.

## Hegazkin modua

Gailuko haririk gabeko funtzio guztiak desaktibatu egiten dira. Sarerik gabeko zerbitzuak soilik erabil daitezke.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Hegaldi modua**.

## Datuen erabilera

Datuen erabilera kontrolatzeko eta muga-doikuntzak pertsonalizatzeko balio du. Doikuntza-pantailan, sakatu Datuen erabilera.

- **Datu mugikorrak:** gailua konfiguratzeko, edozein sare mugikorretan erabil ditzan datu-konexioak.
- **Ezarri datu mugikorren mu...:** datu mugikorren erabilerarako muga bat zehazteko.

Kontrol-aldiaren hileko birdoitze-eguna aldatzeko, sakatu ▼ → Aldatu zikloa

Aukera gehiago erabiltzeko, sakatu ⋮.

- **Mugatu atzeko planoko datuak:** gailua konfiguratzeko, bigarren mailako sinkronizazioa desaktiba dezan sare mugikor bat erabili bitartean.
- **Erakutsi Wi-Fiaren erabilera:** gailua konfiguratzeko, WiFi bidez transferitutako datuen erabilera bistaratu dezan.
- **Wi-Fi eramu ibiltariak:** hautatu Partekatutako konexioa, bigarren mailako aplikazio aktiboek erabili ez ditzaten.

## Kokapena

Aldatu kokapen-informazioaren baimenen doikuntzak.

Doikuntza-pantailan, sakatu Kokalekua, eta, gero, mugitu Kokalekua etengailua, aktibatzeko.

- **Modua:** aukeratu zure kokapen-datuak biltzeko bitarteko bat.
- **Berriki egindako kokapen eskaerak:** uneko kokapenari buruzko informazioa zer aplikaziok eskatzen duten erakusten du, bai eta haiek zenbat bateria erabiltzen duten ere.
- **Kokapen zerbitzuak:** gailua erabiltzen ari den kokapen-zerbitzuak ikusteko.

## NFC

NFC funtzioa aktibatuta, NFC etiketa informaziodunak irakur eta idatz daitezke. Doikuntza-pantailan, sakatu NFC, eta, gero, mugitu NFC etengailua, aktibatzeko.

- **Android Beam:** Android Beam funtzioa aktibatzeko, datuak bidali ahal izateko —hala nola webguneak eta kontaktuak— NFCrako gaitutako gailuetara.
- **Ukitu eta ordaindu:** mugikorreko ordainketak egiteko ordainketa-aplikazio lehenetsia ezartzeko

Baliteke erabilgarri dauden ordainketa-aplikazio guztiak ez egotea ordainketa-zerbitzuen zerrendan.

# Inprimatzea

Konfiguratu instalatutako inprimagailuaren pluginen doikuntzak. Fitxategi bat inprimatzeko, eskuragarri dauden inprimagailuak bila ditzakezu edo bat eskuz gehitu.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Inprimatzea.**

# Sare gehiago

Pertsonalizatu konfigurazioa, sareak kontrolatzeko.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Sare gehiago.**

## Mezularitza-aplikazio lehenetsia

Hautatu mezularitza-zerbitzurako aplikazio lehenetsia.

## Sare mugikorrak

- **Datu mugikorrak:** gailua konfiguratzeko, edozein sare mugikorretan erabil ditzan datu-konexioak.
- **Datu roaminga:** gailua konfiguratzeko, desplazamenduan dagoela datu-konexioak erabiltzeko.
- **Sarbide izeak:** sarbide-puntuen izenak konfiguratzeko (APN).
- **Sare modua:** sare-mota bat aukeratzeko.
- **Sareko operadoreak:** eskuragarri dauden sareak bilatzeko eta sare batean eskuz erregistratzeko.

## VPN

Konfiguratu sare pribatu birtualak (VPN), eta konektatu haietara.

# Gailua

## Soinuak eta jakinarazpenak

Aldatu zure gailuko soinuen doikuntzak.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Soinuak eta jakinarazpenak.**

- **Dei doinua:** dei-doinuen bolumena doitzeko.
- **Media:** musikaren eta bideoen bolumena doitzeko.
- **Jakinarazpenak:** jakinarazpenen bolumena doitzeko.
- **Sistema:** soinu-sistemen bolumena ezartzen du.
- **Soinu modua:** gailua konfiguratzeko, soinu-profila edo profil isila erabiltzeko.
- **Bibratu doinua jotzean:** gailua konfiguratzeko, deiak jasotzean bibratu eta melodia bat erreproduzi dezan.
- **Dei doinuak:** sarrerako deietarako dei-doinu bat gehitzeko edo aukeratzeko.
- **Jakinarazpena:** gertaerak ezagutu ahal izateko melodia bat aukeratzeko, hala nola sarrerako mezuak eta dei galduak.
- **Beste soinuak:** soinu-doikuntza osagarriak konfiguratzeko.
- **Ez molestatu:** onartutako salbuespenen kasuan izan ezik, sarrerako deiak eta jakinarazpen-soinuak isilarazteko moduan konfiguratzeko telefonoa.
- **Blokeo pantailako jakinarazpen..:** blokeo-pantailan jakinarazpenen edukia bistaratu behar den edo ez ezartzeko.
- **Aplikazio jakinarazpenak:** aplikazio bakoitzaren jakinarazpen doikuntzak aldatzeko.

## Pantaila

Aldatu pantailaren doikuntzak.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Pantaila.**

- **Pantaila atzealdea:** Pantaila nagusian eta blokeo-pantailan alda dezakezu pantaila-atzealdeko irudia.
- **Jakinarazpen panela:** jakinarazpen-panelean bistaratzen diren elementuak pertsonalizatzeko.
- **Argitasuna:** pantailaren distira-maila zehazteko.
- **Biratu pantaila automatiko.:** gailua konfiguratzeko, hura biratzean edukia ere automatikoki bira dadin.
- **Pantailaren denbora muga:** pantailaren atzeko argiztapena itzali aurretik zenbat denbora igarotzea nahi duzun hautatzeko.
- **Fantasia:** gailua konfiguratzeko, pantaila-babesa aktiba dezan bateria kargatzen ari denean.

- **Letra estiloa:** pantailako testuaren letra-tipoa aldatzeko.
- **Letraren neurria:** letra-tipoaren tamaina aldatzeko.

## Blokeo-pantaila

Blokeo-pantailaren doikuntzak aldatzeko.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Blokeo pantaila**

- **Pantailaren blokeoa:** pantaila blokeatzeko modua aldatzeko. Aukera hauek aldatu egin litezke, aukeratutako pantaila-blokeoko funtzioaren arabera.
- **Erloju duala:** erloju duala bistaratzen du.
- **Data erakutsi:** erlojuarekin batera, data ere bistaratzen du.
- **Kamera lasterbidea:** pantaila blokeatuan kamerarako lasterbidea bistaratzen du.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

- **Jabearen informazioa:** erlojuarekin batera bistaratuko den zuri buruzko informazioa sartzeko.
- **Desblokeatzeko efektua:** pantaila desblokeatzean bistaratzeko efektu bat hautatzeko.
- **Laguntza testua:** gailua konfiguratzeko, blokeo-pantailan laguntza-testua bistaratu dezan.

## Deiak

Pertsonalizatu dei-funtzioen doikuntzak.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Deia.**

- **Dei ukatzea:** deiei uko egiteko funtziorako doikuntzak aldatzeko; esate baterako, uko egindako deien zerrenda edo errefusatze-mezuak.
- **Deiak erantzutea eta amaitzea:** Deiak erantzuteko edo bukatzeko modua aldatzeko.
- **Deiekin lotutako agerkariak:** gailua konfiguratzeko, leiho gainerakorrak ager ditzan deietarako, edo aplikazioak erabiltzen ari zarela dei baten egoera ager dezan.
- **Ezarpen gehiago:** dei gehigarrien doikuntzak konfiguratzeko balio du.
- **Dei tonu eta tekl. tonuak:** deietarako soinu- eta bibrazio-doikuntzak aldatzeko.
- **Eskutatu nire bideoa:** irudi bat hautatzeko, solaskideari erakusteko.
- **Zerbitzu hornitzailea:** ahots-postontzirako zerbitzu-hornitzailea aukeratzeko edo ezartzeko.
- **Ahots postaren ezarpenak:** ahots-postontzirako zerbitzura sartzeko zenbakia idazteko. Zenbaki hori zure zerbitzu-hornitzaileak emango dizu.

## Aplikazio-administratzailea

Ikusi eta kudeatu gailuko aplikazioak.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Aplikazio kudeatzailea**.

# Pertsonala

## Kontuak

Gehitu posta elektronikoko kontuak edo sare sozialetakoak.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Kontuak.**

## Segurtasun-kopiak egitea eta leheneratzea

Aldatu doikuntzak, doikuntzak eta datuak kudeatzeko.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Babes kopia eta berrezarri**

- E**gin nire dat. bab. kop.:** gailua konfiguratzeko, zure doikuntzen eta aplikazioetako datuen segurtasun-kopia egin dezan Googleren zerbitzari batean.
- **Babes kopia kontua:** segurtasun-kopien Googleko kontua konfiguratzeko edo editatzeko.
- **Berrezarpen automatikoa:** gailua konfiguratzeko, berriro instalatzen dituzunean zure aplikazioetako doikuntzak eta datuak berrezar daitezen.
- **Berrezarri fabrikako datuak:** doikuntzak fabrikako balio lehenetsiekin berrezartzeko, eta datu guztiak ezabatzeko.

## Irisgarritasuna

Erabil modu hau, gailuaren irisgarritasuna hobetu nahi baduzu. Doikuntza-pantailan, sakatu Erabilgarritasuna.

- **Zuzeneko sarbiea:** gailua konfiguratzeko, hasierako botoia hiru aldiz bizkor sakatuta hautatutako irisgarritasuneko menuak ireki ditzan.
- **Deiak erantzutea eta amaitzea:** Deiak erantzuteko edo bukatzeko modua aldatzeko.
- **Ukipen bakarra modua:** konfiguratu gailua, sarrerako deiak kontrolatzeko botoia lerratu beharrean ukituz.

- **TalkBack:** TalkBack aktibatzeko, ahotsezko erantzunak izateko. Funtzio hau erabiltzen ikasteko informazio gehiago ikusteko, sakatu **EZARPENAK** → **Abiarazi "Arakatu ukututa" tutoriala.**
- **Erabilerreaztasun-osagarria:** gailua konfiguratu dezakezu gailuaren botoi fisikoak sakatuta pantailako menuak kontrolatzeko.
- **Esan pasahitzak:** gailua konfiguratu dezakezu pasahitza ozen irakurri dezan TalkBack aktibatuta dagoela sartzen duzunean.
- **Letraren reurria:** letra-tipoaren tamaina aldatzeko.
- **Lupa keinuak:** konfiguratu gailua pantaila handitzeko eta area jakin batean zooma egiteko.
- **Kolore negatiboak:** pantailako koloreak alderantzikatzeko eta, hartara, ikusgarritasuna hobetzeko.
- **Kolorearen zuzenketa:** pantailarako kolore-eskema doitzeko, daltonikoa baldin bazara edo irakurtzeko zailtasunen bat baldin baduzu.
- **Irrisgarritasun lasterbidea:** gailua konfiguratzeko, Talkback aktiba dezan pizteko botoia luze sakatu, eta, ondoren, pantaila bi hatzez luze sakatuz gero.
- **Testutik hizketarako aukerak:** konfigurazioa aldatzen du testua ahots bihurtzeko funtzioa erabiltzeko.
- **Flash jakinarazpena:** flasha konfiguratzeko, keinu egin dezan sarrerako deiak, mezuak edo jakinarazpenak jasotakoan.
- **Itzali soinu guztiak:** soinu guztiak desaktibatzeko, hala nola multimedia-soinuak, deietako solaskidearen ahotsa barne.
- **Google azpitituluak (CC):** Googlerekin bateragarria den edukian ezkutuko azpitituluak bistaratzeko eta ezkutuko azpitituluen konfigurazioa aldatzeko.
- **Mono audioa:** entzungailu bat konektatzen duzunean soinua estereotik monofonikora alda dezan.
- **Soinu oreka:** konfiguratu gailua, entzungailuak erabiltzean soinu-balantzea doitzeko.
- **Ukitu eta eutsi atzerapena:** ikono edo pantaila bat zenbat denboraz sakatu behar duzun definitzeko, normal sakatuta egiten ez duen beste ekintza alternatibo bat egin dezan.
- **Elkarreragin kontrola:** aktibatu interakzio-kontrolaren modua, aplikazioak erabiltzen dituzun bitartean egiten dituzun sarrerekiko gailuaren erreakzioa mugatzeko

# Sistema

## Hizkuntza eta testua sartzea

Aldatu testua idazteko doikuntzak. Hautatu den hizkuntzaren arabera, baliteke aukera batzuk erabilgarri ez egotea.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Hizkuntza eta sarrera**

- **Hizkuntza:** pantailako hizkuntza hautatzeko aukera ematen du (menu eta aplikazio guztietarako).
- **Lehenetsia:** testua idazteko teklatu-mota bat hautatzeko balio du.
- **Samsung teklatua:** Samsung teklatuaren doikuntzak aldatzeko.

Eskuragarri dauden aukerak aldatu egin litezke lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

- **Google ahots bidezko idazketa:** ahots-sarreraren doikuntzak aldatzeko.
- **Ahots sarrera:** ahots-ezagutzarako doikuntzak aldatzeko.
- **Testutik hizketarako aukerak:** testua ahots bihurtzeko aukeren doikuntzak aldatzeko.
- **Puntero abiadura:** kurtsorearen abiadura doitzeko, gailuari konektatutako sagurako edo ukipen -panelerako.

## Eguna eta ordua

Doikuntza hauetara sartu eta aldatu ditzakezu, zure gailuan eguna eta ordua agertzeko modua kontrolatzeko.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Data eta ordua**

Bateria guztiz deskargatuta edo gailutik kanpo badago, eguna eta ordua berrabiarazi egingo dira.

- **Data eta ordu automatikoa:** data eta ordua automatikoki eguneratzeko ordu-eremu batetik bestera joaten zarenean.
- **Data ezarri:** uneko data eskuz konfiguratzeko.
- **Ezarri ordua:** uneko ordua eskuz konfiguratzeko.
- **Ordu eremu automatikoa:** gailua konfiguratzeko, ordu-eremuari buruzko informazioa automatikoki jaso dezan saretik ordu-eremu batetik bestera joaten zarenean.

- **Aukeratu ordu eremua:** tokiko ordu-eremua hautatzeko.
- **Erabili 24 orduko formatua:** ordua 24 orduko formatuan bistaratzeko.

## Bateria aurrezteko ultramodua:

Erabili gabe egoteko denbora luzatzeko eta bateria-kontsumoa murrizteko, diseinu arruntago bat bistaratuz eta aplikazioetara sarbide mugatua jarriz. Informazio gehiago behar baduzu, kontsultatu Energia asko aurrezteko funtzioa.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Bateria aurrezteko ultramo..**, eta, gero, arrastatu **Bateria aurrezteko ultramo..**, etengailua, aktibatzeko.

Gehienezko atseden-denbora zenbatetsiak adierazten du zenbat denbora igaroko den bateria agortu arte gailua erabiltzen ez baduzu. Aldatu egin liteke, gailuaren doikuntzen eta eragiketaren baldintzen arabera.

## Bateria

Ikusi gailuak zenbat energia kontsumitu duen.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Bateria**.

- **Bistaratu bateriaren ehunekoa:** gailua konfiguratzeko, zenbat bateria geratzen zaion bistaratu dezan.

## Biltegiratzea

Ikusi gailuari eta memoria-txartelari buruzko informazioa, edo formateatu memoria-txartel bat.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Memoria**.

Memoria-txartel bat formateatzen baduzu, datu guztiak betiko ezabatuko dituzu.

Barne-memoriaren gaitasuna zehaztutakoa baino txikiagoa da, sistema eragileak eta lehenetsitako aplikazioek haren zati bat hartzen baitute. Eskuragarri dagoen gaitasuna aldatu egin liteke gailua eguneratu ondoren.

## Segurtasuna

Aldatu doikuntzak, gailua eta SIM edo USIM txartela babesteko. Doikuntza-pantailan, sakatu Segurtasuna.

- **Gailu administratzaileak:** gailuan instalatutako administratzaileak bistaratzeko. Administratzaileei baimena ematen zaie politika berriak aplikatzeko.
- **Iturri ezezagunak:** gailua konfiguratzeko, iturri ezezagunetako aplikazioak instala ditzan.
- **Enkriptatu gailua:** gailuan gordetako datuak zifratzeko pasahitz bat definitzeko. Pasahitza sartu beharko duzu telefonoa pizten duzun bakoitzean.

Kargatu bateria doikuntza hori aktibatu aurretik; izan ere, baliteke ordubete baino gehiago behar izatea datuak zifratzeko.

- **Enkriptatu kanpo SD txartela:** gailua konfiguratzeko, memoria-txarteleko fitxategi guztiak zifratu ditzan.

Doikuntza hau aktibatuta dagoela balio lehenetsiak jartzen badizkiozu berriro gailuari, gailuak ezin izango ditu irakurri zifratutako fitxategiak. Desaktibatu ezarpena gailua leheneratu aurretik.

- **Urrutiko aginteak:** gailua konfiguratzeko, galtzen baduzu edo lapurtzen badizute Internet bidez urrutitik kontrolatzeko. Funtzio hau erabiltzeko, saioa hasi behar duzu zure Samsung accounten.
- **SIM aldaketa alerta:** gailua galdu edo lapurtuz gero hura aurkitzen lagunduko dizun mugikor-bilatzailearen funtzioa aktibatzeko zein desaktibatzeko.
- **Joan webgunera:** mugikorra bilatzeko webgunera sartzeko (Find my mobile, findmymobile.samsung.com). Buscar mi móvil webgunean, galdutako edo lapurtutako gailuaren arrastoari jarraitu diezaiokezu, eta hura kontrolatu.
- **Ezarri SIM txartelaren blokeoa:** SIM txartela blokeatzeko doikuntzak aldatzeko.
- **Jarri pasahitza ikusgai:** gailua konfigura dezakezu, sartu ahala pasahitza bistaratu dezan.
- **Segurt. po. eguneraketak:** gailua konfiguratzeko, segurtasun-eguneraketak automatikoki bila eta deskarga ditzan.
- **Bidali segurtasun txostenak:** gailua konfiguratzeko, segurtasun-txosten eguneratuak automatikoki bidal diezazkion Samsungi.
- **Biltegiratze mota:** ziurtagiri-fitxategietarako biltegiratze-mota bat konfiguratzeko.

- **Egiaztagiri fidagarriak:** ziurtagiriak eta kredentzialak erabiltzeko, hala, aplikazioak modu seguruan erabiltzen direla bermatzeko.
- **Instalatu gailuaren memoriatik:** USB gailuan gordeta dauden ziurtagiri zifratuak instalatzeko.
- **Garbitu egiaztapenak:** gailuko kredentzialetako edukiak ezabatzeko eta pasahitza berrezartzeko.
- **Eragile fidagarriak:** gailuan instalatutako konfiantzako agenteak ikusteko.
- **Finkatu leihoak:** gailua konfiguratzeko hautatutako aplikazioan pantailan jartzeko.
- **Sartu aplikazio erabilera datuet…:** gailuaren erabilera-historiara zer aplikazio sar daitekeen ikusteko.
- **Smart Lock:** gailua konfiguratzeko blokeo-pantaila saihesteko konfiantzazko gailuak edo kokapenak detektatzen direnean.

## Gailuari buruz

Gailuari buruzko informazioa eskuratzeko, gailuaren izena editatzeko edo gailuaren softwarea eguneratzeko balio du.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Gailuari buruz**.

# Arazoak konpontzea

Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin harremanetan jarri aurretik, egin proba hauekin: Baliteke egoera batzuk zure gailuan aplikatzerik ez izatea.

## Gailua pizten duzunean edo erabiltzen ari zarenean, kode hauetako bat sartzeko eskatzen dizu:

- Pasahitza: gailua blokeatuta badago, gailuari ezarri zenion pasahitza idatzi behar duzu.
- PINa: gailua lehen aldiz erabiltzean edo PIN kodearen eskaera aktibatuta dagoenean, SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN kodea sartu behar duzu. Funtzio hori desaktibatzeko, erabili Blokeatu SIM txartela menua.
- PUKa: SIM edo USIM txartela blokeatuta dago; normalean, PINa behin baino gehiagotan gaizki idazteagatik gertatzen da. Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako PUK kodea.
- PIN2: PIN 2 kodea eskatzen duen menu batera sartzen bazara, SIM edo USIM txartelarekin emandako PIN 2 kodea sartu behar duzu. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## Zure gailuan sare- edo zerbitzu-errorea ageri da

- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro. Mugitu bitartean, baliteke errore-mezuak behin baino gehiagotan bistaratzea.
- Aukera batzuetara ezin da sartu harpidetu gabe. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## Zure gailua ez da pizten

- Bateria ez badago guztiz deskargatuta, gailua ez da piztuko. Kargatu bateria erabat gailua piztu aurretik.
- Baliteke bateria ez egotea ondo sartuta. Sartu berriro bateria.
- Garbitu bateria eta gailua konektatzen dituzten urre-koloreko kontaktuak, eta sartu berriz bateria.

## Ukipen-pantailak geldo edo desegoki erantzuten du

- Ukipen-pantailan babes-estalki bat edo aukerako osagarriak jartzen badituzu, baliteke ondo ez funtzionatzea.
- Eskularruekin edo esku zikinekin ukipen-pantaila sakatuz gero edo pantaila objektu puntadunekin edo hatz-mamiekin ukituz gero, baliteke ondo ez funtzionatzea.
- Litekeena da ukipen-pantailak ongi ez funtzionatzea ingurune hezeetan edo bustitzen denean.
- Berrabiarazi gailua, software-erroreak ezabatzeko.
- Egiaztatu gailuaren softwarea bertsio berrienekin eguneratua dagoela.
- Ukipen-pantaila marratua edo kaltetua badago, jo ezazu Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzura.

## Gailuak ez du erantzuten edo errore larriak ditu

Gailuak erantzuten ez badu, itxi aplikazioak edo itzali gailua, eta berriro piztu. Gailua izoztu egiten bada edo ez badu erantzuten, sakatu pizteko tekla eta bolumen-tekla beherantz batera gutxienez 7 segundoz, berrabiarazteko.

Arazoa ez bada konpontzen, berrezarri fabrikatik ekarritako doikuntzak. Aplikazio-pantailan, sakatu **zarpenak** → **Babes kopia eta berrezarri** → **Berrezarri fabrikako datuak** → **BERREZARRI GAILUA** → **Ezabatu guztia** Fabrikako datuak berrezarri aurretik, gogoan izan gailuan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia egin behar dela.

Arazoa ez bada konpondu, jarri harremanetan Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin (LTZ).

## Ezin da deirik egin

- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu markatu nahi duzun telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.
- Ziurtatu telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

## Solaskideak ezin dizu entzuten deia egitean

- Ziurtatu ez zarela ari mugikorraren mikrofonoa estaltzen.
- Ziurtatu mikrofonoa zure ahotik hurbil dagoela.
- Entzungailuak erabiltzen badituzu, ziurtatu behar bezala konektatuta daudela.

## Deiak egitean oihartzuna entzuten da

Doitu bolumena, bolumen-tekla sakatuz, edo mugitu lekuz.

## Sare mugikorrak edo Internet sarri deskonektatzen dira, edo soinua kalitate txarrekoa da

- Egiaztatu ez duzula blokeatzen gailuaren barneko antena.
- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Baliteke konektatzeko arazoak izatea zerbitzu-hornitzaileak arazoren bat duelako. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.
- Mugitzen ari zarela gailua erabiliz gero, baliteke sare mugikorreko zerbitzuak desgaitzea, zerbitzu-hornitzailearen sareko arazoen ondorioz.

## Bateriaren ikonoa hutsik dago

Materia-maila baxua du. Kargatu bateria.

## Bateria ez da behar bezala kargatzen (Samsungek onartutako baterietarako)

- Ziurtatu kargagailua ondo konektatuta dagoela.
- Bateriaren terminalak zikinak badaude, baliteke bateria ondo ez kargatzea edota gailua itzaltzea. Garbitu urre-koloreko kontaktuak, eta sartu berriro bateria.

## Gailua erosi nuenean baino azkarrago deskargatzen da bateria

- Bateria edo gailua tenperatura altuegietan edo baxuegietan erabiliz gero, kargatzearen bizitza erabilgarria murriztu egin liteke.
- Bateria-kontsumoa handitu egiten da mezularitza-funtzioak eta zenbait aplikazio erabiliz gero (adibidez, jokoak edo Internet).
- Bateria kontsumitu egiten da, eta ohiko kargatzea laburragoa bihurtzen da denborarekin.

## Gailua blokeatu egiten da

Gailua berotu egin daiteke aplikazioak denbora luzez erabiltzen badira edo energia gehiago behar duten aplikazioak erabiltzen badira. Hori normala da, eta ez du eraginik telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan.

## Errore-mezuak agertzen dira kamera abiaraztean

Gailuak nahikoa memoria eta bateria izan behar du kameraren aplikazioa erabili ahal izateko. Kamera abiaraztean errore-mezuak agertzen badira, saiatu hau egiten:

- Kargatu bateria.
- Eraman datuak ordenagailu batera edo ezabatu gailutik, memorian toki gehiago egiteko.
- Berrabiarazi gailua. Iradokizun hauei kasu eginda ere kameraren aplikazioarekin oraindik ere arazoak badituzu, jarri harremanetan Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin.

## Argazkien kalitatea ez da aurrebistarena bezain ona

- Argazkien kalitatea aldatu egin liteke, ingurunearen eta argazkilaritza-tekniken arabera.
- Leku ilunetan, gauez edo leku itxietan argazkiak ateraz gero, baliteke irudiak zarata izatea edo irudiak fokutik kanpo egotea.

## Errore-mezuak bistaratzen dira multimedia-fitxategiak irekitzean

Gailuan multimedia-fitxategiak irekitzean errore-mezuak agertzen badira edo halako fitxategiak ez badira erreproduzitzen gailuan, saiatu hau egiten:

- Eraman datuak ordenagailu batera edo ezabatu gailutik, memorian toki gehiago egiteko.
- Egiaztatu musika-fitxategia ez duela babesten eskubide digitalen kudeaketa-sistema batek (DRM). DRMz babestua badago, egiaztatu fitxategia erreproduzitzeko beharrezkoa den lizentzia edo gakoa duzula.
- Egiaztatu gailuak fitxategi-formatuak onartzen dituela. Fitxategi-formatu bat ez bada bateragarria, hala nola DivX edo AC3, instalatu haiek onartzeko aplikazio bat. Gailuak zer fitxategi-formatu onartzen dituen jakiteko, kontsultatu www.samsung.com webgunea.

- Gailuarekin ateratako argazkiak eta bideoak onartzen ditu gailuak. Baliteke beste gailu batzuekin egindako argazkiek eta bideoek ondo ez funtzionatzea.
- Zure sare-hornitzaileak edo zerbitzu osagarrien hornitzaileek baimendutako multimedia-fitxategiak onartzen ditu gailuak. Baliteke Internetetik hartutako eduki batzuek (melodiak, bideoak edota pantaila-atzealdeak) ondo ez funtzionatzea.

## Ezin da aurkitu bluetootha darabilen beste gailurik

- Ziurtatu beste gailuan haririk gabeko bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela.
- Ziurtatu haririk gabeko bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela konektatu nahi duzun gailuan.
- Egiaztatu gailua eta beste bluetooth gailua bluetootharen gehienezko irismen-tartearen barruan daudela (10 metro).

Ohar horiei jarraitu ondoren arazoak bere horretan badirau, jarri harremanetan Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin.

## Ez da konexiorik ezartzen gailua ordenagailu bati konektatzean

- Egiaztatu erabiltzen ari zaren USB kablea gailuarekin bateragarria dela.
- Egiaztatu ordenagailuak behar duen kontrolagailua instalatuta eta eguneratuta dagoela.
- Windows XP erabiltzen baduzu, egiaztatu ordenagailuak Windows XP Service Pack 3 edo berriago bat instalatuta daukala.

## Gailuak ezin du aurkitu uneko kokapena

GPS seinaleak ez dira iristen leku batzuetara; adibidez, leku itxietara. Halakoetan, konfiguratu gailua WiFi-a edo sare mugikor bat erabil dezan zure uneko kokapena bilatzeko.

## Gailuan biltegiratutako datuak galdu egin dira

Egin beti gailuan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopiak. Bestela, ezingo dituzu berrezarri kaltetutako edo galdutako datuak. Samsungek ez du bere gain hartzen gailuan gordetako datuak galtzeagatiko erantzukizunik.

## Hutsune txiki bat dago gailuaren zorroaren kanpoaldearen inguruan

- Hutsune hori fabrikazioko nahitaezko ezaugarri bat da, eta baliteke zati batzuk mugitzea edo bibratzea eragitea.
- Denborarekin, aldeen kontaktuaren ondorioz, baliteke hutsune hori apur bat handitzea.

## Adostasun-deklarazioaren laburpena

SAMSUNGek adierazten du, bere ardurapean, tresna honek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 99/05/EE Direktiban finkatutakoa betetzen duela; Direktiba hori 2000ko azaroaren 20ko 1890/2000 Errege Dekretuaren bidez egokitu zen espainiar estatuko legeriara.

## Copyrighta

Copyrighta © 2015 Samsung Electronics

Eskuliburu hau egile-eskubideen nazioarteko legeek babesten dute.

Debekatuta dago eskuliburu honen zatiak erreproduzitzea, banatzea, itzultzea edo bidaltzea bitarteko elektroniko edo mekanikoak erabiliz (fotokopiak, grabaketak edo informazioa biltegiratzeko eta berreskuratzeko edozein sistema), Samsung Electronicsek aldez aurretik idatzizko baimena ematen ez badu.

## Marka komertzialak

- SAMSUNG eta SAMSUNGen logotipoa Samsung Electronicsen marka erregistratuak dira.
- Bluetooth SIG, Inc.-en marka komertzial erregistratua da Bluetooth®, mundu osoan.
- WiFi Allianceren marka komertzial erregistratuak dira Wi-Fi®, Wi-Fi Protected Setup™, Wi-Fi Direct™, Wi-Fi CERTIFIED™, eta WiFi logotipoa.
- Gainerako marka komertzialak eta egile-eskubideak beren jabeenak dira.